

TRATU TXARRAK ADINEKOENGAN: DETEKZIO TRESNEN ANALISIA

GRADU AMAIERAKO LANA 2020-2021



LITERATURA ZIENTIFIKOAREN AZTERKETA KRITIKOA

Egilea: Mainer Cornes Fernández
Zuzendaria: M^o Dolores Calle Calle

Hitz kopurua: 7582

ESKER ONAK

Gurasoei, nirekin izan duten pazientzia guztiagatik.

Loliri, lan honetan beti sinesteagatik.

Begoñari, bere laguntza desinteresatua eskaintzeagatik.

Lagunei, momentu guztiengatik.

Fernandori, bide luze honetan beti nire ondoan egoteagatik.

AURKIBIDEA:

1. SARRERA.....	5
2. MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA.....	6
3. HELBURUA.....	10
4. METODOLOGIA.....	11
4.1. Testu mota.....	11
4.2. Bilaketa estrategia.....	11
4.3. Artikuluaren aukeraketa.....	12
5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA.....	13
5.1. Analisi kualitatiboa.....	14
5.1.1. Arreta jasotzaileari zuzendutako tresnak.....	14
5.1.2. Zaintzaileari zuzendutako tresnak.....	20
5.2. Analisi psikometrikoa.....	22
5.2.1. Erreproduzigarritasuna.....	22
5.2.2. Sentsibilitate – espezifikotasuna.....	24
6. ONDORIOAK ETA MUGAK.....	26
7. ERREFERENTZIAK.....	28
8. ERANSKINAK.....	32
1. eranskina: Kontzeptu taula.....	32
2. eranskina: Bilaketa taula.....	33
3. eranskina: Irakurketa kritikorako gidoiak.....	35
4. eranskina: Fluxu-diagrama.....	39
5. eranskina: Adinekoen tratu txarrak eta zabarkeria hautemateko balioztatutako tresnak ...	40
6. eranskina: Zuhaitz Kategoriala.....	46
7. eranskina: Tratu txarrak hautemateko tresnen sailkapena, hartzailea eta tratu txar moten arabera.....	47
8. Eranskina: Vulnerability to Abuse Screening Scale (VASS).....	48
9. Eranskina: Older Adult Financial Exploitation Measure (OAFEM).....	49
10. Eranskina: Older Adult Psychological Abuse Measure (OAPAM).....	51
11. Eranskina: GMS (Geriatric Mistreatment Scale).....	52
12. Eranskina: Adineko Pertsonenganako Tratu Txar Fisiko eta Ekonomikoak Prebenitu eta Hautemateko Prozedura (ATTFEHP).....	53
13. Eranskina: Expanded-Indicators Of Abuse (E-IOA).....	57
14. Eranskina: The Caregiver Abuse Screen for the Elderly (CASE).....	60
15. Eranskina: Emergency Department Senior Abuse Identification (ED Senior AID).....	61
16. Eranskina: Responding to Elder Abuse in Geriatric Care-Self-administered (REAGERA-S).....	62
17. Eranskina: Family Mistreatment against Older Adults Screening Questionnaire.....	63
18. Eranskina: Indicators Of Abuse (IOA).....	64
19. Eranskina: Elder Abuse Suspicion Index (EASI).....	65

20. Eranskina: Self-Reported Neglect Scale (SRNS)	66
21. Eranskina: The Brief Abuse Screen For The Elderly (BASE)	67
22. Eranskina: Elder Abuse and Neglect Assessment Instrument (EAI)	68
23. Eranskina: The Hwalek-Sengstock Elder Abuse Screening Test (H-S/EAST)	70
24. Eranskina: Kontzeptu estatistikoen taula.	71

1. SARRERA

Marko kontzeptuala eta justifikazioa: Mendebaldeko gizarteak, adinekoenganako tratu txarrak ikertu beharreko eta konpondu beharreko arazo sozial garrantzitsutzat hartzen hasi dira. Adinekoek jasaten dituzten tratu txarrek heriotza, erikortasuna, bizi kalitatearen kaltetzea eta baliabide pertsonalen, osasunen eta sozialen kontsumoaren igoera dituzte ondorioztat. Osasun zerbitzuen eginkizuna, beraz, oso garrantzitsua da, baita osasun profesionalek arazo honi buruz duten ezagutza ere. Detektatzeko eta prebenitzeko tresnen erabilera fenomeno horri aurre egiteko lehen tresna da, batez ere tratu txar posibleak hautemateko orduan.

Helburua: Adineko pertsonak jasaten dituzten tratu txarrak hautemateko erabiltzen diren tresna ezberdinen erabilgarritasuna aztertzea.

Metodologia: Helburuari erantzuteko artikulak Medline (Ovid), CINAHL, Cuiden, EMBASE eta PsycINFO datu baseetan eta, Cochrane ebidentzian oinarritutako erakundea kontsultatuz eta eskuzko bilaketaren bidez lortu dira. Guztira, 16 tresna ezberdin aztertzen dituzten 21 artikulua erabili dira.

Emaitzak: Adineko tratu txarrak detektatzeko erabiltzen diren tresnen erabilera aztertzeke helburuarekin, hautatutako 16 tresnen analisi kualitatiboa eta psikometrikoa burutu da. Analisi kualitatiboari dagokionez, tresnak zainketa jasotzaileari zuzendutakoak eta zaintzaileari zuzendutako tresnetan sailkatu egin dira azterketa burutzeko. Ondoren, ebaluatzen duten tratu txar mota eta horretarako erabiltzen dituzten itemak aztertu eta alderatu egin dira. Bestalde, analisi psikometrikoaren kasuan, artikuluek ematen dituzten datuen arabera fidagarritasuna, barne-konsistentzia, behatzailearen barne-fidagarritasuna eta sentzibilitatea eta espezifikotasuna aztertu eta alderatu dira.

Ondorioak: Tresnen analisisia burutu ostean, beraien artean desberdintasun handiak daudela ikusi da. Praktika orokorrean erabiliko den tresna aukeratzea zaila da, aurkitzen garen ingurunearen eta testuinguruaren arabera baita, halere, berrikuspen honetan adinekoengan tratu txarrak antzemateko gomendagarrien iruditzen zaigun tresna *E-IOA Appendix B* eskala da. Aitzitik, azterketa psikometriko osoago baten etorkizuneko azterketak egin beharko lirakeela ondorioztatzen da.

Hitz gakoak: adineko pertsonak, tratu txarrak, detekzioa, propietate psikometrikoak, baliozkotasuna eta fidagarritasuna.

2. MARKO KONTZEPTUALA ETA JUSTIFIKAZIOA

Biztanleriaren zahartzea, XX. mendearen bigarren erdialdean gizarte garatuetan eman den aldaketarik esanguratsuenetakoa da. Industrializatutako herrialdeetan adineko pertsonen kopuru osoaren etengabeko handiagotzea ematen ari da (1).

Euskal Autonomi Erkidegoari (EAE) dagokionez, 2019. urtean 65 urte edo gehiagoko 486.738 pertsona bizi ziren, 280.132 emakumeak eta 206.606 gizonak izanik. EAEko 65 urteko eta gehiagoko adin-taldeak gora egin du 2008-2019 aldian. Hala, 2008an, biztanleriaren %18,6a izan zen; 2013an, % 20,2a, eta, 2019an, % 22,2a (2).

Adindu horiek arrisku handiagoa dute osasun arazoak izateko, gaixotasun kronikoak eta bestelako gaixotasunak pairatu ditzakete, modu independentean eguneroko bizitzako jarduerak burutzeko zailtasunak izanik. Horien ondorioz, epe luzeko arreta behar izaten dute, zaurgarritasun handiko egoeran aurkituz (3).

Adinekoek jasaten dituzten tratu txarren egoerak hautematea oso garrantzitsua da, baina prozesu hau oztopatzen duen hesietako bat fenomeno honentzako adostutako definiziorik ez dagoela izango litzateke.

1995. urtean *Action on Elder Abuse* erakundeak garatutako definizioa, urte berean *The International Network for the Prevention of Elder Abuse* (INPEA) erakundeak bereganatuta eta ondoren 2002. urtean Torontoko Deklarazioan Osasun Munduko Erakundeak (OME) iragarritakoa, definizioetan onartuena izan da. Gainera, adinekoekiko tratu txarrak arazo unibertsal gisa izatearen onarpen sozial eta profesionalerako funtsezko puntuetako bat izan da (3, 4, 5, 6).

Hortaz, OMEk adinekoenganako tratu txarrak honela definituko lituzke (6):

“ekintza bakarra edo errepikatua, edo erantzun egokirik ez izatea, adineko pertsona bati kalteak edo estutasunak eragiten dituena eta konfiantza itxaropena dagoen edozein harremanen barruan gertatzen dena”.

Joan den mendeko 70reko hamarkadaren erdialdetik aurrera, mendebaldeko gizarteek adinekoenganako tratu txarrak ikertu beharreko eta konpondu beharreko arazo sozial garrantzitsutzat hartzen hasi zuten. Ziur aski, gehiegikeriazko portaera gehienak betidanik existitu izan ohi dira, baina beharrezkoa da gizarteak horrelako ekintza eta utzikeriak adieraztea (7).

2013an, Ban Ki-Moon Nazio Batuen Erakundeko idazkari nagusiak gobernu guztiei eskatu zien prebentzio estrategia eraginkorrak garatzeko eta ezartzeko, baita lege eta politika zorrotzagoak ere, eta ekainaren 15a Zahartzaroen Gehiegikeriak eta Tratu Txarrak Ezagutzera Emateko Munduko Eguna aldarrikatu zuten (8).

Egun, adinduenganako tratu txarrak giza eskubideen urraketatzat hartzen dira eta lesio, gaixotasun, produktibitate galera, isolamendu eta etsipen arrazoi nagusietakoa bat dira (7).

"Abusu" eta "Tratu txarrak" kontzeptuak aztertuz, "Indarkeria" kontzeptu orokorragoaren barruan kokatzen dira, beste definizio batzuen artean, pertsonen eskubideen aurkako edozein egoera bezala ulertua, arriskuan jartzen eta kalte egiten diena, edo haien osotasunari eta harreman anitzi eragiten diena gizarte, familia, lan, hezkuntza ingurunearekin, etab.

Adinekoen aurkako indarkeriaz hitz egiten dugunean, egia da zaurgarriak diren eta defentsarako gaitasun txikiak dituzten biktimez ari garela, zahartzearen prozesu biologikoa dela eta, fisikoki zein mentalki, bizitasun galtze gisa ulertua (horrek kanpoko erasoan aurrean

zaugarritasun handiagoa dakar). Tratu txarrak gehiegikeriazko egoera batetik sortzen dira, biktima eta erasotzailearen arteko harreman desorekatutik (9).

Ikuspegi zabalago batetik, Larousse hiztegian agertzen den bezalako definizioek indarkeria “*indar bizia, oldartsua*” edo “*indarraren gehiegikeria*” dela diote. Beste alde batetik, gehiegikeria erabilera desegokia, gehiegizkoa edo bidegabearekin identifikatzen da, tratu txarrak kontzeptua, ordea, “gaizki tratatu, kaltetu” bezala definitzen da (10).

Russellen arabera (1999), “*gehiagikeria (abuso) eta tratu txarren (maltrato) arteko aldea lehenengoa ingelesez egiten diren argitalpenetan gehiago erabiltzen dela eta bigarrena testu erdaldunetan da*”. Hau da, ez da alde nabarmenik ezartzen (11). Lan honetarako kontsultatutako bibliografia anglosaxoiko tresnek *gehiagikeriaz (abuso)* hitz egiten dute. Bestalde, jatorri erdalduna duten tresnek *Tratu txarrak (maltrato)* aipatzen dituzte.

Ildo beretik, berdina al dira “*tratu txarrak*” (*maltrato*) eta “*tratu desegokia*” (*maltrato*) kontzeptuak? Hauek hautemateko zailtasunak direla eta, Espainiako Errege Akademiaren (EEA) hiztegian dauden terminoak berrikusi dira (12):

Tratu txarra eman (Maltratar): *1. Tratar con crueldad, dureza y desconsideración a una persona o a un animal, o no darle los cuidados que necesita. 2. Tratar algo de forma brusca, descuidada o desconsiderada.*

Tratar: *Comunicarse o relacionarse con alguien.*

Mal: *Daño u ofensa que alguien recibe en su persona o hacienda.*

Beraz, gaizki tratatzea “*beste norbaitekin komunikatu edo elkar-eragitean kalte edo iraintzea*” bezala definituko litzateke. EEAREN definizioen arabera, badirudi desberdintasun gutxi daudela.

Moya eta Barberok *Malos tratos a personas mayores: guía de actuación* (13), gidan aipatzen dute “*tratu txarrak*” (*maltrato*) eskubideen urraketa larria direla (tratu txar fisikoa, sexuala, psikologikoa...) eta ez direla maiz ematen. “*Tratu desegokia*” (*Maltrato*) edo “*tratu desagadable*” (*trato desagradable*) ohikoagoa da, baina ia beti oharkabean gertatzen da. Aldea ere ondorioen larritasunean dago.

Beste alde batetik, adinekoek ohiko ingurune batean tratu txarrak pentsaezinak direla uste duten bitartean, “*tratu desegokia*” dirudiena baino egoera arruntagoa da. Bere izaera sotil eta maltzurra, ordea, jasaten ez duenarentzat ez da begi-bistakoa eta sufrizten dutenentzat komunikatzeko zaila da (10).

Tratu txarraren definizioaren kasuan bezala, bere tipologiaren sailkapen desberdinak daude. Garrantzitsua da tipologia unibertsala izatea, alde batetik ematen ari den tratu txar motaren arabera, esku hartzeko estrategia batzuk edo beste batzuk jarriko lirateke martxan, eta bestetik, tratu txar moten sailkapena ondo zehaztuta egonez gero, jakingo lirateke zehazki zein diren mota zehatz bakoitzaren adierazleak, tratu txar posibleak antzeman eta identifikatzeko lana erraztuz (3, 14, 15).

Adineko pertsonetako tratu txar mota desberdinen inguruko literatura aztertu egin da. Horri dagokionez, bost tratu txar mota identifikatu dira: tratu txar fisikoa, tratu txar psikologikoa, neglijentzia edo abandonua, eraso sexuala eta tratu txar ekonomikoa. Hauen sailkapena eta ezaugarriak *Emaitzak* atalean garatu dira.

Ikuspegi epidemiologikotik adinekoen tratu txarrak aztertzen saiatu diren hainbat lan existitzen dira, halere, ikerketa horietatik bat bera ere ez da biztanleria osoaren arabera burutu. Hori dela

eta, ikerketa horietatik lortutako emaitzak ezin dira biztanleria osora estrapolatu. Gainera, erabilitako eskalak eta baremoak ez dira balioztatuak izan (16).

Espainiari dagokionez, Gema Perez Rojok 2013an Madrilen, Malagan eta Donostian burututako ikerketaren emaitzei dagokionez, lagin osoaren tratu txarren prebalentzia %12,1a dela aurkitu zen. Gainera, gehiegikeriarik sarriena psikologikoa (%11,5) zela ikusi zen, gehiegikeria fisikoa eta sexu erasoak jarraituta (%2,95), ez hain sarri utzikeria (%2,07) eta gehiegikeria ekonomikoa (%1,11) emanik. Ikerlariak lortutako emaitzak taula batean antolatu zituen, sexu, adin, probintzia eta zentro motaren arabera kategorietan sailkatuta (1. Taula) (17).

1. taula: Espainian komunitatean bizi diren adineko pertsonen aurkako tratu txarren prebalentzia:

	Prebalentzia (%)	KT %95
<i>Lagin osoa</i>	12,1	8,63-15,63
<i>Sexua</i>		
Gizonak	7,46	2,98-11,94
Emakumeak	15,2	10,24-20,15
<i>Adina, urteak</i>		
74 urtera arte	12,57	7,73-17,40
75-84	13,18	7,30-19,06
85 eta gehiago	3,85	3,72-11,41
<i>Probintzia</i>		
Madril	15,24	9,71-20,78
Malaga	9,30	0,49-18,12
Donostia	9,16	4,18-14,14
<i>Zentro Mota</i>		
Lehen Mailako Arreta	10,1	4,39-15,79
Zerbitzu Sozialak	13,1	8,71-17,50

KT %95: %95eko Konfiantza Tarte

Iturria: Pérez-Rojo *et al.* (2013).

2010rean, EAEko adinekoek jasaten dituzten tratu txarren errealitatea ezagutzeko Eusko Jaurlaritzak tratu txarren prebalentzia eta ezaugarriak ezagutzeko ikerketa burutu zuen Euskadin. Ikerketa honen arabera, 60 urte eta gehiagoko ikertutako adinekoen %0,9ak tratu txarrak jaso izan dituela aldarrikatu zuen. Beste era batera esanda, 60 urte eta gehiagoko adinekoen biztanleria Euskadin 552.092koa dela jakinik, hemen bizi diren 60 urte eta gehiagoko adinduen artean 4.969 tratu txarrak jasaten ari direnaren susmoa dagoela ondorioztatu daiteke. Hori gutxi balitz, ikertzaileen ustez, aipatutako ehunekoak %1,5era igoko litzateke, izan ere gehiegikeria guztiak ez dira salatuak izaten (14).

Adinekoen tratu txarrak arazo sozial giza azaleratu zen duela urte gutxi, ez lehen existitzen ez zelako, ezkutuko arazoa zelako baizik. Adinekoen bizi-itxaropena handitzearen ondorioz, hau da, biztanleria zahartzen doan heinean, adinduek jasaten dituzten tratu txarrak fenomeno handitzen doa ere bai.

Adinekoen tratu txarrak heriotza, erikortasuna, bizi kalitate kaltegarria eta baliabide pertsonalen, osasungarrien eta sozialen kontsumoaren gehikuntzarekin lotzen ditugu eta horiek adinekoen tratu txarrak benetako osasun publikoaren arazoa bihurtzen dute.

Osasun zerbitzuen eginkizuna oso garrantzitsua da, baita osasun profesionalek arazo honi buruz duten ezagutza ere. Detektatzeko eta prebenitzeko tresnen erabilera fenomeno horri aurre egiteko lehen tresna da, batez ere profesional horiek tratu txar posibleak hautemateko orduan.

Edozein osasun arazoren behaketa tresnak balioztatzea oso urrats garrantzitsua da tratu txarrak bezalako egoera konplexuei aurre egiteko, batez ere, hainbat egoera direla eta, aipatutako tratu txarrak ezkutatuta mantentzen direnean.

Adineko tratu txarrak ebaluatzeko irizpideen beharra hiru faktore nagusietatik sortu da: osasun arloko profesionalek maiz izaten duten adinekoen tratu txarrak identifikatzeko erantzukizuna,

betekizun hori burutzeko profesionalen prestakuntza eza eta adinekoen gehiegikerien inguruko ikerketa gehiagoren beharra praktikari mamia emateko.

Adineko tratu txarrak hautemateko hainbat tresna eta protokolo garatu dira. Gehienak ospitaleetan, kliniketan edo etxeko arretan erabiltzeko sortu dira. Nahiz eta guztiek antzeko edukia partekatu eta adinekoen gehiegikeria identifikatzen laguntzera bideratuta dauden, funtsezko desberdintasunak daude tresna edo protokolo bakoitzak biltzen dituen datuen fokuan, formatuan, egituren eta datu motan (18).

Horri, sailkapenaren adostasun falta, gehiegikeria kasua identifikatu edo jarraipena nola egin jakiteko behar den ezagutza ez izatea, alderdi etikoak, denbora falta, gaixoak informazioa ematera ukatzea eta arazoaren kontzientzia eza gehituz adinekoek jasaten dituzten tratu txarren detekzioan aurki ditzakegun hesiak dira.

Adinekoek jasotzen duten tratu txarrak kezka sortzen ez duela ikusteak nire lana gertakari honen arloan bideratzea bultzatu nauen arrazoietakoa bat da. Modu berean, adinekoek jasaten dituzten tratu txarrak detektatzeko eskura dauzkagun tresnen aniztasun handiak eta haien arteko adostasun eta antzekotasuna ezak, hauen erabilgarritasuna aztertzeraz motibatua nau.

Faktore horiek guztiak kontuan hartuta, nire lana erizaintzarako zein baliagarria izan daitekeen galdetu diot neure buruari, eta honekin konturatu naiz adinekoengan tratu txarrak antzematea osasun profesionalek aurkezten duten puntu zaurgarrietako bat dela.

Modu honetan aurkezten dut lan hau, non, adinekoekiko tratu txarrak hautemateko tresna desberdinen existentziaren eta erabileraren ezagutzaren bidez, tratu txarren detekzioa hobetu eta adinekoen bizi-kalitatea nabarmen handitu daitekeen.

3. HELBURUA

Adineko pertsonen jasaten dituzten tratu txarrak hautemateko erabiltzen diren tresna ezberdinen erabilgarritasuna aztertzea.

4. METODOLOGIA

4.1. Testu mota

Gradu Amaierako Lan honetan aurretik aipatutako helburuari erantzuteko literatura zientifikoaren azterketa kritikoko lana bideratu da.

4.2. Bilaketa estrategia

Bilaketa estrategiari dagokionez, helburuari erantzuteko kontzeptu nagusiak identifikatu dira: *adineko pertsonak*, *detekzioa* eta *tratu txarrak*. Era berean, test edo galdetegi, eta gure kasuan eskalen baliagarritasuna neurtzeko erabiltzen diren propietate psikometrikoei buruzko informazioa aurkitzeko *propietate psikometrikoak* eta *baliozkotasuna* eta *fidagarritasuna* kontzeptuak hautatu dira.

Ondoren, aipatutako hitz hauen sinonimoak aztertu dira lengoai naturalean, bai euskaraz eta bai ingelesez eta kontzeptua guztiz finkatzeko lengoia kontrolatura pasatu dira, deskriptoreak lortuz.

Hasteko, **adineko pertsonak** definitzeko hainbat deskriptore desberdin aurkitu dira datu base desberdinen arabera: *aged*; *aged, 80 and over*; *elderly*; *geriatric patients*; *older adulthood*; *ancianos* eta *personas mayores* besteak beste. Ondoren, **tratu txarrak** definitzeko *elder abuse*, *eldely abuse*, *malos tratos* eta *síndrome del abuso en el anciano* erabili dira. Jarraian, **detekzioa** kontzeptua hurrengo deskriptoreak erabiliz definitu da: *Diagnosis*; *Diagnóstico*; *Surveys and Questionnaires*; *Surveys*. Esan beharra dago detekzio kontzeptuan gaztelaniazko eta ingelesezko sinonimo asko aurki daitezkeela eta beraz deskriptoreak ere. Hala ere, deskriptore horiek ez dute erabilgarria den emaitzarik ematen. Azkenik, **propietate psikometrikoak** eta **baliozkotasuna** eta **fidagarritasuna** definitzeko *psychometrics* edo *psychometry* eta *validity* AND *reliability* deskriptoreak erabili dira (1. eranskina).

Bilaketarekin jarraituz, hitz gakoak konbinatu dira boleanoak (AND/OR) erabiliz, bilaketa ekuazio ezberdinak sortuz eta ekuazio hauek datu base desberdinetan sartuz bilaketa bibliografikoa egiteko.

Erabilitako datu baseak *Medline (Ovid)*, *CINAHL*, *Cuiden*, *EMBASE* eta *PsycINFO*, eta *Cochrane* ebidentzian oinarritutako erakundea izan dira. Azkenik, eskuzko bilaketa ere egin da *The Gerontologist* aldizkari elektronikoa eta *Google Scholar*ren. Datu base, erakunde eta aldizkari hauetan aurrera eramandako bilaketa ezberdinak 2. eranskinean ikus daitezke (2. eranskina).

Burututako bilaketa bibliografikoaren emaitzetan oinarrituz, artikuluen hautaketa burutzeko artikuluetan barneratze eta kanporatze irizpide ezberdinak erabili dira:

Barneratze irizpideak

Argitalpen mota: Artikuluek, helburuari erantzuten dioten diseinuak izatea behar dute, hala nola, zeharkako azterketak, azterketa longitudinalak, behaketako kohorteen azterketa prospektiboa, metodologia mistoa eta artikulua originalak. Guztiak *full text*-ean argitaratuak eta eskuragarriak.

Lagina: 60 urte edo gehiago dituzten gizon zein emakume eta haien zaintzaileak, arraza, osasun egoera edo egoera sozioekonomikoa edozein dela ere. Ikerketetan gutxienezko adina 60 edo 65 urte jartze dute urte mugatzen. Azterketa guztiak errebisio honen barne edukitzeko gure lagina 60 urte edo gehiago izatea erabaki da.

Argitaratze data: hasiera batean, argitaratze dataren muga 2010. urtean jarri izan zen, emaitzetarako erabilitako informazioa eguneratuta egon zedin, hala ere, azken 10 urteetan argitaratutako artikulua kopurua hain baxua zenez eta adinduak jasaten dituzten tratu txarrak detektatzeko tresna erabilienak 2010. urtea baino lehenago argitaratuak izan zirenez, uste izan dugu lan honetarako egokiena urte muga ez jartzea dela.

Hizkuntza: lan hau burutzeko, ingelesezko, gaztelaniazko eta euskarazko artikulua hartu dira, maneiatzen ditudan hizkuntzak direlako.

Artikuluen jatorria: mendebaldeko kultura duen edozein herrialde, artikuluan landutako biztanleria gurerara estrapolatu ahal izateko.

Kanporatze irizpideak

Argitalpen mota: meta-analisiak, errebisio bibliografiko eta sistematikoak alde batetik, eta bestetik literatura grisa, iritzi artikulua, tesiak, aktak, konferentziak... fidagarritasun falta dela eta.

Autonegligentzia: Ikerketa-helburua norberak bere buruari egiten dion utzikeria (autonegligentzia) duten argitalpenak baztertu egin dira, izan ere, iritzi desberdinak daude tratu txar mota gisa sartzearen edo ez denaren egokitasunari buruz.

4.3. Artikuluen aukeraketa

Esan bezala, *Medline (Ovid)*, *CINAHL*, *Cuiden Embase* eta *Psycinfo* datu baseetan eta *Cochrane* Liburutegian, guztira, 594 artikulua lortu dira, horietako 35 errepikatuak izanik. Lehenengo berrikusketetan, izenburua irakurriz helburuarekin bat ez datozen 458 artikulua baztertu dira.

Honen ostean, *abstracta* irakurriz barneratze irizpideak betetzen zituzten 26 artikulua aukeratu dira potentzialki baliogarriak izan daitezkeen testuak zehaztuz, ondoren *full text*-a bilatzeko, Osakidetzako Katalogoa, *My Athens* eta *Google Scholar* plataforma erabili dira. *Full text*-ean lortu ez den artikulua 1 baztertu da eta eskuzko bilaketan egindako bilaketari esker, bi testu gehitu dira.

Behin hau eginda, lortutako artikulua bakoitzak lanari eman zezakeen informazioa eta aberastasunaren ebaluazioa egin da. Horretarako 27 artikuluen kalitate metodologikoaren ebaluaketa burutu da *Ikerketa kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia* (3. *eranskina*) erabiliz. Horrela, 6 artikulua deuseztatu dira. Irakurketa kritikorako aukeratutako lanen ikerketa diseinuari dagokionez, 4 zeharkako azterketa, 5 azterketa longitudinal, 8 behaketako kohorteen azterketa prospektibo eta metodologia mistoko 4 artikulua erabili dira.

Jarraian, artikuluen aukeraketa eta baztertzea azaltzen duen eta eskematikoki laburtzen duen fluxu-diagrama idatzi da (4. *eranskina*).


Emaitzetarako erabiliko diren 21 artikuluen ezaugarri esanguratsuenak bildu egin dira eta laburpen taulan antolatuta ikus daitezke (5. *eranskina*).

Bukatzeko, artikuluetatik lortu den informazioa zuhaitz kategorialean laburtu eta multzokatu da emaitzak ordenatzeko asmoz (6. *eranskina*).

5. EMAITZAK ETA EZTABAIDA


Literaturaren berrikuspen kritikoa eta bilaketa prozesua burutu ostean, guztira 21 ikerketa erabili dira lan honetarako. Aukeratutako artikuluen %50 baino gehiago azken 10 urteetan argitaratu ziren (1. irudia). Ingelesez argitaratutako artikulua dira nagusi (2. irudia). 21 artikulua datu base desberdinetatik aukeratu dira (3. irudia). Horrez gain, tresna bakoitza argitaratu duten egile kopuruaren arabera banatu dugu (4. irudia).

ARGITARALPEN URTEA




1. Irudia: argitalpen urtearen araberako banaketa

ARTIKULU KOPURUA




2. Irudia: argitalpen hizkuntzaren araberako banaketa

DATU BASEEN ARTIKULUEN EHUNEKOA



3. Irudia: datu-baseen araberako banaketa

TRESNA BAKOITZEKO AUTORE KOPURUA



4. Irudia: tresna bakoitzeko autore kopurua

16 tresna aurkitu egin dira bibliografia hautatzetik, horietatik 5 eskalak kontsideratu dira, izan ere, pertsona bat ados edo ez egon daitekeen adierazpen multzo gisa ulertzen dira eta maiztasun (inoiz, batzuetan, ia beti, beti), intentsitate edo zailtasun (ezer ez, gutxi, asko) adierazpenak izan ditzaketen erantzun ordenatuetan antolatuta daude (40). Gainerako 11k, aldiz, galdetegiak kontsideratzen dira, norbanakoaren nortasuna bezalako izaera pertsonaleko zerbait jakiteko galdera multzo batez osatutako tresnak direlako, eta "egia" edo "falsua", "bai" edo "ez", "ados" edo "ez ados" bezalako dikotomia islatzen duen edozein erantzun erabiltzen dituzte besteak beste (40).

Definizio hauek kontuan hartuz, hautatutako 16 tresnak eskala eta galdetegietan sailkatu daitezke (3. taula):

3. taula: Adinekoen tratu txarrak ebaluatzeko tresnen sailkapena.

ESKALAK	GALDETEGIAK
	<i>Vulnerability to Abuse Screening Scale (VASS)</i>
	<i>Geriatric Mistreatment Scale (GMS)</i>
	<i>EAEko Adineko Pertsonenganako Tratu Txar Fisiko eta Ekonomikoak</i>
	<i>Prebenitu eta Hautemateko Prozedura (ATTFEHP)</i>
<i>Older Adult Financial Exploitation Measure (OAFEM)</i>	<i>The Caregiver Abuse Screen (CASE)</i>
<i>Older Adult Psychological Abuse Measure (OAPAM)</i>	<i>ED Senior Abuse Identification (ED SENIOR AID)</i>
<i>Expanded-Indicators Of Abuse (E-IOA)</i>	<i>Responding to Elder Abuse in Geriatric Care-Self-administered (REAGERA-S)</i>
<i>Indicator Of Abuse (IOA)</i>	<i>Screening Questionnaire of Family Mistreatment against Older Adults (FAMOASQ)</i>
<i>Elder Assessment Instrument (EAI)</i>	<i>Elder Abuse Suspicion Index (EASI)</i>
	<i>Self-Reported Neglect Scale (SRNS)</i>
	<i>Brief Abuse Screen for the Elderly (BASE)</i>
	<i>Hwalek-Sengstock Elder Abuse Screening Test (HS/EAST)</i>

Iturria: egileak egina Ventura León J *et al.* (2020) artikulutik abiatuta.

Adinekoek jasaten dituzten tratu txarrak hautemateko tresnen erabilgarritasuna aztertzeko, analisi kualitatiboa eta beste analisi psikometriko bat aurkezten ditugu dagozkien azpikategorietan (6. *eranskina*).

5.1. Analisi kualitatiboa

Analisi kualitatiboari dagokionez, arreta hartzaileari eta zaintzaileari zuzendutako tresnak bereizten ditugu. Arreta jasotzaileari zuzendutako tresnei dagokienez, ebaluatzen dituzten tratu txarren motaren arabera sailkatu ditugu: tratu txar fisikoak, tratu txar psikologikoak, neglijentzia edo abandonua, eraso sexualak eta tratu txarrak ekonomikoak. Era berean, zaintzaileari zuzendutako tresnak honela sailkatu dira: tratu txar psikologikoa, neglijentzia edo abandonua eta tratu txar ekonomikoa.

Analisi hau egiteko hautatutako 5 eskaletako eta 11 galdeketetako elementu guztiak 5 tratu txar motatan sailkatuzera jo dugu. 7. *eranskinean* tratu txar mota bakoitzari esleitutako elementuak kontsulta daitezke, baita informazio iturria ere, arreta jasotzailea edo zaintzailea bada (7. *eranskina*).

5.1.1. Arreta jasotzaileari zuzendutako tresnak

Detekziorako tresnak, gure kasuan, adinekoenganako tratu txarrak antzemateko helburua duen galdera edo elementu multzoak osatzen du. Aipatutako tresnak objektiboak izan daitezke, hau da, informazioa bildu egiten dute osasun profesionalak egindako behaketaren bidez, edo subjektiboak, non informazioa zuzenean adineko pertsonari egindako elkarrizketaren bidez biltzen den.

5.1.1.1. Tratu txar fisikoa

Tratu txar fisikoa pertsona batek borondatez eta guztiz nahita burututako edozein ekintza, hala nola kolpeak, zaplaztekoak, erretzea, pertsona giltzaperatzea, botiken erabilera desegokia egitea eta abarren ondorioz adineko pertsonak jasaten dituzten min eta lesio fisikoei deritzo.

Tratu txar mota honek hainbat adierazle edo ondorio ditu, hauek objektiboak edo subjektiboak izan daitezke. Objektiboen artean, zauriak, erredurak, apurtutako hezurak, luxazioak, urradurak, ilearen galera, zauriak aurpegian edo buruan, nolabaiteko euste fisikoak edo kimikoak jasan izanaren seinaleak, hipotermia eta sendagai-maila anormalak aurki ditzakegu

besteak beste. Bestalde, biktimak mina adieraztea ukitzen den bakoitzean, adierazle subjektiboari buruz hitz egingo dugu (3, 14, 15).

Tratu txar mota hau esplorazio fisikoaren bitartez jaso daiteke, kalte fisikoaren datu objektiboak biltzen lagunduz, edo arreta jasotzailearekin batera egindako elkarrizketaren bidez.

Lau tresnek soilik ebaluatzen dute tratu txar fisikoa modu objektiboan. EAEko *Adineko Pertsonenganako Tratu Txar Fisiko eta Ekonomikoak Prebenitu eta Hautemateko Prozedurak (ATTFEHP)* (12. eranskina) euste mekanikoei, erredurei, beste lesio batzuei eta indarrez elikatzeari buruzko datuak biltzen ditu. *E-IOA Appendix B* (13. eranskina), *IOA* (18. eranskina) eta *EAI* (22. eranskina) eskalak “*bruising*”, “*lacerations*” edo “*fractures*” buruzko informazioa jasotzeko bideratuta daude.

Lau tresnen itemak alderatuz gero, deigarria da *ATTFEHP* galdetegiak ebaluazioa eusteei eta behartutako elikaduretara bideratzea. Desberdintasun horrek azalpen soziokulturala izan dezake. Espainian tradizionalki jendea eustea erorketak saihesteko onura egiten zuen praktikatzat hartu da, kalte horiek edo beste batzuk ekiditeko jardunbide egokitzat joz. Era berean, hobe jotzen zen pertsona jatera behartzea jan gabe uztea baino, izan ere, kanpotik utzikeria gisa uler zitekeen. Bi egoera horietan, tradizionalki benefizentzia printzipioa nagusitzen zen autonomiaren ginetik. Litekeena da gaur egun, zaintzaile batzuek zainketa hori gehiegikeria fisiko gisa interpretatu ere ez izatea.

Hautatutako 16 tresnetatik 7k tratu txar mota horri buruzko datuak biltzen dituzte biktimak berak betetako txostena edo elkarrizketa baten bidez. 7 galdetegietatik, *VASS* (8. eranskina), *ED SENIOR AID* (15. eranskina), *REAGERA-S* (16. eranskina), *EASI* (19. eranskina) eta *HS/EAST* (23. eranskina) tratu txar fisikoa item bakar baten bidez ebaluatu egiten dute, “*has anyone close to you tried to hurt you or harm you recently*” bezalako galdera orokorra erabiliz; edo *BASE* (21. eranskina) galdetegiaren kasuan bezala, non osasun profesionalari tratu txar fisikoa susmatzen duten galdetzen dion.

Azpimarratu behar da *ED SENIOR AID* (15. eranskina) galdetegia esplorazio fisiko baten bidez osatu daitekeela. Azterketa hau tresna administratzen duen erizainak adinduak gehiegikeriaren berri emateko duen gaitasunean konfiantza ez badu edo tresnaren 1. eta 2. zatiak administratu ondoren tratu txarrak daudela ziur ez badago soilik burutuko da.

GMS (11. eranskina) galdetegiak tratu txar fisikoa 5 item erabiliz ebaluatzen du, lesio mota desberdinak jasoz “*¿le han golpeado?, ¿le han dado puñetazos o patadas?*”.

Aztertutako 11 eskaletatik 7k elementu bakar baten bidez tratu txar fisikoa ebaluatzen dutela kontuan hartuta, ondorioztatu daiteke elementu bakarra nahikoa dela hori hautemateko. Haatik, nire ustez, *GMS* bezalako galdera multzoak beharrezkoak dira biktimari tratu txar egoera desberdinak identifikatzen lagun diezazkioketelako. Gainera, komenigarria litzateke azterketa fisiko osagarri bat gehitzea, tratu txarrak jasaten dituzten pertsona guztiek ez baitute beren egoera adierazteko gaitasun kognitiboa, modu berean, agian ez dira ausartzen ondorioen heldur edo agian ez dakite tratu txar mota hori identifikatzen.

Laburbilduz, tratu txar fisikoa hautatutako 16 tresnetatik 11k hartzen dute barne, tratu txar mota hau item bakar baten bidez ebaluatzen duten tresnak gailenduz. Horrek ebaluazio nahikoa ez egitea dakar hainbat galdera taldekatzean egindako ebaluazioan ez bezala, *GMS* (11. eranskina) kasuan, edo ebaluazio objektiboan erabiltzen diren item kopuru dezentea, *IOA* (18. eranskina) eta *EAI* (22. eranskina) bestak beste.

5.1.1.2. Tratu txar psikologikoa

Tratu txar psikologikoa ahozko erasoa, mehatxuen erabilera, tratu txar emozionala, beste pertsoneri eragindako tratu txarrak ikustera behartzea, estutasun psikologikoa sortzea, baita adineko bati egindako edozein beldurtze eta umilazio ekintza ere, hala nola, haurra balitz bezala tratatzeari deritza. Hitz gutxitan, adinekoen osasun mentala kaltetu dezakeen edozein hitz, ekintza edo jarrera mota burutzea (3, 14, 15).

Tratu txar mota hau profesionalak ebaluatu dezake arreta jasotzaileari egindako elkarrizketaren bidez, galdera orokor edo zehatzagoak erabiliz; edo profesionalaren behaketaren bidez eta datu objektiboen bilketa tresna ezberdinek jasotako itemen bitartez.

Eskala eta galdeketa desberdinak aztertu ondoren, eta tratu txar psikologikoekin lotuta, aztertutako 16 tresnetatik 12k tratu txar mota hau jasotzen dutela ikusi dezakegu.

E-IOA Appendix A (13. eranskina) eskalak tratu txar psikologikoa detektatzeko item gehien bideratzen dituen tresna da, %84,4 adierazle bideratuz “*has outbursts, expresses, angry and bitter towards his/her environment*” adibidez, modu honetan garatuena izanik. Elementu kopuru esanguratsua duen beste eskala *OAPAM (10. Eranskina)* da, galderen %74,2a tratu txar psikologikoa baloratzera bideratuta dago.

Aitzitik, *EAEko galdetegi (12. eranskina)* daukagu, zeinek tratu txar psikologikoa ebaluatzeko adierazle bakarra, hau da, galdetegiaren adierazle guztien %3,6a, bideratzen duen; tratu txar mota hau ebaluatzeko elementu gutxien biltzen dituen galdetegi izanik. Bestalde, komentatu beharra dago galdetegi honek tratu txar psikologikoei buruzko informazioa biltzen duen arren, ez duela identifikatzea helburu.

Gainerako tresnek, gehiegikeria mota honetara bideratutako galderen ehunekoa *E-IOA Appendix B (13. eranskina)* eskalaren %20,5a eta *VASS (8. eranskina)* galdetegiaren %66,7ren artean dago.

Detekzio tresna desberdinen artean, tratu txar psikologikoaren definizioarekin bat ez datozen hurrengo itemak azpimarratu behar dira. Alde batetik, *GMS (11. eranskina)* galdetegiak 8. itemean honakoari buruz hitz egiten du “*¿Lo han aislado o corrido de la casa?*”, hau da “*Etxetik bota al zaituzte?*”. Gure kulturean, adinekoak etxetik botatzea legez zigortzen da eta, beraz, bere ondorioak izango lituzke. Galdera mota hau, tresna Mexikon garatu izanaren ondorioa da, non zahartzaroa eta pobreziarekin lotutako osasun arazo handia dagoen, adinekoen ongizatea bermatzeko beharrezkoak diren azpiegiturak eta giza ahalmena garatu ez diren erakundeen babes urriko eta desberdintasun sozial sakoneko testuinguru batean (41).

Beste alde batetik, *E-IOA Appendix A (13. eranskina)* eskala norbanakoaren osasun mentala kaltetu dezakeen familiaren galerak edo traumak aipatzen dituen bakarra da, “*Family copes with special problems or trauma (disabled child, recent loss)*” adierazlea erabiliz. Elementu hau familiaren gatazkak sor ditzakeen ondoezaren adierazle gisa ulertzen da, baina ez du adinekoengan tratu txar psikologikoa dagoenik erakusten.

Haatik, ikusi dezakegu *EAE*n garatutako galdetegiak ez duela tratu txar mota hau aipatzen eta, horrela, gure komunitatean tratu txar mota hori hautemateko hutsune garrantzitsua utziz.

Gainera, eta tratu txar psikologikoaren definizioan adierazten den moduan, adineko pertsonaren infantilizazioa *OAPAM (10. eranskina)* galdetegian bakarrik biltzen da.

Baliteke adinekoak haurrak balira bezala tratatzea ez dela tratu txar psikologiko gisa identifikatzen, baizik eta maitasun erakustaldi moduan. Oso maiz ikusten den tratu desegokia

da, gehiegizko babesarekin lotuta dagoena eta ez du adineko pertsonaren duintasuna mantentzen laguntzen.

Azkenik, garrantzitsua da tratu txar psikologikoak antsietatea eta azaltzen ez duen beldurra sor dezakeela jakitea. Era berean, ilea galtzea, gosea galtzea edo nahasmena bezalako somatizazioak ager daitezke (42). Hori dela eta, tratu txar mota honen balizko adierazle horiei adi egon behar dugu alderdi fisikoetan.

5.1.1.3. Negligentzia edo abandonua

Omisio ekintza, nahita (aktiboa) edo nahi gabeko (pasiboa) akatsa adineko pertsona baten funtsezko beharrak betetzean (higiene pertsonala, adibidez) edo egon nahi duen jendearekin egotea eragozte, "tratu isila" ematea (berarekin ez hitz egin) negligentzia kontsideratuko litzateke. Egoitza esparruan, langileak edo sistemak huts egin edo ez betetzearen ondorioa izan liteke, adibidez langile kopuru eskasa, motibazio falta eta abarren ondorioz.

Tratu txar hau hainbat modutan adieraz daiteke, gernu edo gorotz usaina, janzkera desegokia, pertsona adindua bakartzea edo bere jardueretatik kanpo uztean adibidez. Bestetik, negligentzia eta adinduaren bakartzeak, honengan presioak eragindako ultzerak, zikinkeria, malnutrizioa eta deshidratazioa bezalako ondorioak eragin ditzake (3, 14, 15).

Analisis burutu ostean, aztertutako 16 tresnetatik 14k negligentziari buruzko informazioa biltzen dutela ikusi dugu. Beste tratu txar mota batzuk bezala, arreta jasotzailearekin edo zaintzailearekin egindako elkarrizketa, edo norberak egindako txostenaren bidez galdera orokor edo zehatzagoen bidez; edo datu objektiboen behaketaren eta bilketaren bitartez negligentzia ebaluatu daiteke.

Instrumentu guztien artean *Self-Reported Neglect Scale (SRNS)* (20. eranskina) nabarmentzen da, informazioa norberak betetzen duen txosten baten bidez biltzen duena, non galderen %100a gehiegikeria mota hau detektatzera bideratzen den.

Tresna gehienek biltzen duten tratu txar mota izan arren, item kopurua, eta beraz, haien proportzioa, nahiko txikia da informazio hori arreta jasotzailearekin egindako elkarrizketaren bidez biltzen duten tresnetan. Aipatutako proportzioa, *REAGERA-S* (16. eranskina) galdetegiaren %11 eta *FAMOASQ* (17. eranskina) galdetegiaren %46,7ren artean dago.

Negligentzia eta abandonuari buruzko informazioa biltzen duten 14 tresnetatik 4k bakarrik egi-ten dute datu objektiboen behaketaz eta bilketaz. Zentzu horretan, *EAI* (22. eranskina) eskala nabarmentzen da tratu txar mota honetara bideratutako elementuen %64,5arekin.

Lau tresnek, *E-IOA* (13. eranskina), *IOA* (18. eranskina), *EAI* (22. eranskina) eta *ATTFEHP* (12. eranskina) galdetegiak item desberdinak aipatzen dituzte. Hauek aztertuz, *EAI* eskalan adinduaren zaintzan negligentzia eta abandonuaren ondorioak jasotzen direla ikusten da, "contractions", "decubiti", "depression", "urine burns", "impaction", "skin integrity" bezalako itemak erabiliz, definizioak jasotako ondorioak, alegia. Maila txikiagoan, *E-IOA Ap.B* (13. Eranskina) eskalan tratu txar mota horren zenbait ondorio biltzen dira ere bai.

Aipatutako itemei dagokionez, tratu txar fisikoaren item moduan kontsideratu daitezkeela ikusi dugu. Argitu behar da, *larruzalaren osotasun eza*, *erredurak*, *kontrakturak* eta abar ondorio fisikoak izan arren, horien zergatia guztiz bestelakoa dela. Gogoan izan tratu txar fisikoa "nahita kalte edo lesio fisikoa eragitea" bezala definitu dugula. Bestalde, negligentzia adineko baten ezinbesteko beharrak betetzean, nahita egindako porrot (aktiboa) edo ez (pasiboa) gisa definitzen dugu (10).

EAEren 1. galdetegian (12. eranskina) biltzen diren 5., 7. eta 8. itemak azpimarratzen ditugu, hauek zaintzaren antolaketari, zaintzaile nagusiaren muga pertsonalei edo adindua gaizki ordaindutako, motibaziorik gabeko, soldata baxuko profesionalek eta abarrek artatzeari buruzko informazioa jasotzen dute. Testuinguru horretan, *Zaintzaileen Sindromeaz* hitz egin dezakegu. Mendekotasuneko adineko pertsonaren zaintzaile nagusiaren rola betetzen duten pertsonak bizi duten neke emozional eta fisiko sakona da (43). Egoera horrek, zainketaren arduradunak adineko pertsonaren beharrak alde batera uztea eragin dezake bere burua gaindituta ikusten duelako, adindua neglijentzia edo abandonu egoeran murgilduz.

Heldu zaharrak batzuetan tratu txar mota honen aurrean zaugarriak izaten dira, behin familien zutabeak izateari utzi eta bizitza osorako arreta eskatzen duten gaixotasun kronikoen ondorioz "zama" bihurtzen direnean. Zaintzaileek arreta alde batera utzi dezakete eta baliteke adinekoek behar duten arreta beti ez jasotzea. Batzuetan, familiak ere, jada ez diete burutu ezin dituzten eguneroko zereginak burutzeko behar duten laguntza eta ulermena ematen.

Maiz, neglijentziari aurre egiteko zailtasunak izaten dira agertzen den sotiltasunagatik, eta horrek detekzioa eta esku-hartzea erabakigarriak bihurtzen ditu. Neglijentziak izan ditzakeen ondorioak biktimaren mendekotasun mailarekin lotura estua dute, izan ere, adinduak zaintzaileak zaindu gabe utzi edo asetzeko gai ez denari erantzun diezaioke edo ez. Tratu txar mota hau agerian geratzen da mendekotasuna areagotuz gero, horregatik, zaintzaileak adinekoen beharrak beren funtzionaltasunaren arabera bete dituen ala ez baloratu behar da (44).

5.1.1.4. Eraso sexuala

Eraso sexuala, adineko pertsonaren kontsentimendu gabe, behartua izan delako, baimen hori emateko gaitasunik ez duelako edo iruzurraren bidez burututako izaera sexualeko edozein kontaktu izatera, aho, uzki edo baginako fereka bortxaketaz gain, sodomia, biluztera edo sexualki esplizituak diren argazkiak ikustera derrigortzeari deritzo (3, 14, 15).

Gai honi dagokionez, beharrezkoa da hainbat kontzeptuen definizioa azaltzea, izan ere definizioaren arabera delitu desberdinen aurrean aurkitu gaitzke. Hau horrela izanik, sexu erasoak indarkeriarekin edo larderiez egindako beste pertsona baten askatasun sexualaren eta kalte-ordain sexualaren aurkako edozein eraso barne hartzen ditu. Honen barnean bortxaketa aurkitzen da: sexu erasoan zakila baginatik, uzkitik edo ahotik sartzea, edo, edozein objektu edo gorputz-adar (hatzak, adib.) baginatik zein uzkitik sartzeari deritzo.

Abusu sexualak, berriz, beste pertsona baten askatasunaren eta sexu indemnizazioaren aurkako edozein eraso barne hartzen dute, baina indarkeriarik edo larderiearik gabe egindakoa, nahiz eta beti ere pertsona horren baimenik gabe egin (45).

Bagina, uzkiko edo bularretako traumatismoak, aho edo uzkiko odol-jarioak, sexu bidezko gaixotasunen edo genital infekzioen seinaleak, urratutako arropa, zikina edo odolarekin eraso sexuala baieztatzen duten adierazle eta ondorioak dira (3, 14, 15).

Analisis burutu ostean, adinekoen sexu erasoaren detekzioa zuzendutako tresna kopuruaren beherakada nabarmena da, 16tik 6; haien ebaluazioan erabilitako item kopuruaren murrizketa aipagarria den moduan.

E-IOA Appendix B (13. eranskina) eskala gehiegikeria mota horretara bideratutako itemen %10,25arekin eta *GMS* (11. eranskina) galdetegia galderen % 9,1ekin, proportzio handiagoa duten tresnak direla ikusi da. Hala ere, esan daiteke gainerako tratu txar motekin alderatuta proportzioa oso txiki dela.

Adineko pertsonetan eraso sexuala ebaluatzen dituzten gainerako tresnen (*REAGERA-S*, *IOA* eta *EASI*) item kopurua urria da, item bakarra izanik, *EAI* (22. *eranskina*) izan ezik, 2 item jasotzen baititu.

Aztertutako tresnen elementu guztiak aukeratutako definizioarekin bat datoz, *E-IOA Appendix B* (13. *eranskina*) eskalaren 29. itema izan ezik, zeinetan adierazleak honako hau baloratzen duen: “*Difficulties walking or sitting (for no evident reason)*”. Elementu hau garrantzitsua dela uste dut, zeharka informazio osagarria eskaini diezagukeelako definizioan sartzen diren gainerako itemek emandako informazioaz haratago eta beste tresnek proposatutako azterketa fisikora jo behar izan gabe. Haatik, kontuan hartu behar dugu sexu abusuetatik aski argi ez dagoen zantzuren baten aurrean aurki gaitzkeela.

Adinekoen zuzendutako tratu txarrak fenomeno ikusezina dira oraindik gure gizartean, eta kasu honetan, tresnetan sexu erasoak ez aztertzeak ez du tratu txar mota hau ikusgai egiten. Adinekoen sexu erasoak oso gutxitan eztabaidatzen den gaia da, errealitatea izan arren. Sexu erasoak tabua den gaia izaten jarraitzen dute, neurri handi batean salatu gabeak, antzeman gabeak eta, beraz, ikusezinak. Egoera hau, adin aurreratuan sexualitatearen kontzeptua onartzen ez duen jarrera sozialean oinarritzen da. Estereotipo negatiboak, hala nola, adinekoak ez direla izaki sexualak eta besteekiko duten mendekotasun handiagoa, adinekoen sexu erasoak salatzeke, detektatzeko eta prebenitzeko oztopoak dira.

Sexu erasoen egileak familiatik kanpoko pertsonak, ezezagunak, direla ustea tratu txar mota honen mitoetako bat da. Zorritzarez, adinekoen erasotzaile gehienak senideak dira, normalean zaintza postuetan daudenak. Horrek, arazoaren funtsezko izaera azaltzen du. Izan ere, adineko pertsonak, oro har, ez dute egoera salatzen erasotzaileekin dagoen familia lotura dela eta (46).

5.1.1.5 Tratua txar ekonomikoa

Gehiegikeria ekonomikoa adinduari kalte egiten dioten eta beste pertsona baten onura ekartzen duten ekintzak dira, hala nola, lapurreta, adineko pertsonaren baliabide eta ondasunen legez kanpoko erabilera egitea, testamentua aldatzera behartzea eta abar. Erakundeetako langileek, senitartekoek, bisitariak edo beste bizilagunek instituzioetan bizi diren pertsonen ondasun pertsonalak lapurtu ditzakete.

Tratua txar honen adierazleak pertsonaren kontuetako mugimendu anormalak, hala nola bat-bateko dirua ateratzea, ezohiko gastuak edo zaharraren antzik ez izateagatik bitxiak diren dokumentuen sinadurak izan daitezke. Gainera, adinekoaren bizi maila eta kalitatea gutxitzea (fakturak ordaintzeko ezintasuna, etxe-gabetzeak etab.) arazo honengatik ematen den ondorioetako bat da (3, 14, 15).

Hautatutako 16 tresnetatik, 12k elkarrizketen edo adierazleen bidez eta intentsitate desberdinez aztertzen dute adinekoek jasaten duten tratua txar ekonomikoa.

Guztien artean, *Older Adult Financial Exploitation Measure (OAFEM)* (9. *Eranskina*) nabarmendu egiten da. Bere itemen %100a tratua txar mota hori hautemateko, zainketa hartzailearen eta osasun profesionalaren arteko elkarrizketa zabal baten bidez, eskaintzen duen identifikatutako neurri bakarra da.

Era berean, jatorri mexikarreko galdetegia, *GMS* (11. *eranskina*), adinekoari 5 galdera egiten dizkio guztira.

Azkenik, galdera orokor bakarraren bidez tratua txar ekonomikoak biltzen dituzten hainbat tresna daude, hala nola, *VASS* (8. *eranskina*), *ED SENIOR* (15. *eranskina*), *REAGERA-S* (16. *eranskina*), *EASI* (19. *eranskina*) y *BASE* (21. *eranskina*). Aipatutako tresnetatik, *ED SENIOR* (15. *eranskina*) eta *EASI* (19. *eranskina*) galdetegiekin detekzioerako galdera berdina, “*Has*

anyone tried to force you to sing papers or to use your money against your will?”, erabiltzen dutela ikus daiteke.

Modu berean, *HS/EAST* (23. *eranskina*), 2 itemekin, eta *VASS* (8. *eranskina*) galdetegiak galdera bera partekatzen dute *“has anyone taken things that belong to you without your OK?”*.

12 tresnetatik lauk objektiboki ebaluatzen dute tratu txar mota hau. EAEko 1. *galdetegiak* (12. *eranskina*) adineko pertsonak tratu txarrak jasateko duten arriskua ebaluatzea du helburu, bere adierazleen %40a bideratuz, eta adinduaren egoera ekonomikoari buruzko datuak jasotzen ditu, zorrei eta gatazka aurrekari buruzkoak, besteak beste. EAEko 2. *galdetegiak*, ostera, tratu txar ekonomikora bideratutako elementuen %28,6rekin tratu txar mota horren zantzu objektiboak antzeman nahi ditu. *E-IOA Appendix A eta Appendix B* (13. *eranskina*), *IOA* (18. *eranskina*), y *EAI* (22. *eranskina*) eskalak *“finantza menpekotasunari”*, *“dirua gaizki erabiltzeari”* edo *“kontu edo diru/ondasunetan erantzukizun ezari”* buruzko informazioa biltzera bideratuta daude.

Tresna desberdinen itemak aztertu ondoren, *GMS* (11. *eranskina*) eta EAEko 1. *galdetegiak* (12. *eranskina*) *“persona nagusiaren arduraren hartzerakoan zaintzailearen gehiegizko interesa”* aipatzea deigarria egiten zaigu, beste edozein tresnetan baloratua ez izateaz gain, ez da definizioan sartzen. Gauza bera gertatzen da EAEko galdetegiaren *“arazo ekonomikoak direla-eta historia gatazkatsua”* eta *“justifikatzeko inolako txosten medikorik edo psikologikorik egin gabe adineko pertsonaren legezko ezintasunaren eskaera egitea”* gaiei buruzko itemekin.

Bestalde, goian aipatu bezala, utzikeriak edo abandonuak ondorio fisikoak ekar ditzake (presioak egindako ultzerak, adibidez). Modu berean, sexu gehiegikeriak edo tratu txar ekonomikoak eragin psikologiko suntsitzaileak izan ditzake biktimarengan, baina ez dugu esango tratu txar emozional edo psikologikoa jasan dutenik.

Amaitzeko, *ATTFEHP* (12. *Eranskina*) eta *HS/EATS* (23. *eranskina*) galdetegiak eta *OAFEM* (10. *eranskina*), *E-IOA Ap. A* (13. *eranskina*) eta *IOA* (18. *eranskina*) eskalak familiako kide ezberdinek adineko pertsonaren baliabide ekonomikoak dieten menpekotasuna aipatzen dute, horren ondorioa fakturak ordaintzeko ezintasuna, zerbitzu eza, etxe-gabetzea eta adinekoen bizi-maila okertzea izanik. Askok adinekoen ezjakintasuna eta asmo onaz aprobeztatzen dira diru sarrerak bereganatzeko. Gainera, beste batzuetan, krisi ekonomikoa dela eta, familia askok adinekoen baliabide ekonomikoak menpe egon behar izan dute. Hori dela eta, adinekoen baliabide ekonomikoak egokiak direnean baina oinarritzko beharrak estaltzen ez dituztenean, zergatik jakin behar dugu (10).

5.1.2. Zaintzaileari zuzendutako tresnak

Zaintzailearen bidez adinekoenganako tratu txarrak hautematea xede duten tresnei dagokionez, adinduari zuzendutakoei bezala, informazio objektiboa behaketaren bidez, zein subjektiboa elkarriketa baten bidez biltzea dute helburu. Tresna-kopurua modu adierazgarrian murrizten dela nabarmendu behar da.

5.1.2.1. Tratu txar psikologikoa

Tratu txar psikologikoa da instrumentu horien artean gehien baloratzen dena. Horrela, *CASE* (14. *eranskina*) galdetegiak *“do you often feel you have to yell at (x)?”* bezalako galderen %62,5a bideratzen ditu, eta *E-IOA Ap. A* (13. *eranskina*) eta *IOA* (18. *eranskina*) eskalak tratu txar mota hau detektziorako %76,1a eta %58,3a *“has outbursts”*, *“is confused or disoriented”* eta *“has marital/family conflict”* bezalako itemetara bideratzen dute, hurrenez hurren.

Ikus dezakegu, *CASE* (14. *eranskina*) galdetegian zaintzaileari egindako galderek azken honek modu fidagarrian ez erantzutea ekar dezaketela, adineko pertsonengan tratu txar mota hori

antzemateko informazio eskasa bilduz. Aitzitik, *IOA Ap. A (13. eranskina)* eta *IOA (18. eranskina)* eskalen adierazle eta behaketa objektiboen bidez profesionalak gehiegikeriaren zantzu desberdinak modu eraginkorragoan antzeman ditzake.

5.1.2.2. Negligentzia eta abandonua

Modu berean, tresnek adineko pertsonak jasaten duten negligentzia edo abandonua ere ebaluatzen dute, hala ere intentsitate txikiagoarekin (*CASEk %37,5*, *IOAk %33,3* eta *E-IOA Ap Ak %19,6*).

Zainketa jasotzaileari zuzendutako tresnek ez bezala, non tratu txar mota hau oso modu nabarmenean baloratzen den, zainketaileari zuzendutako baliabideek ez dute hain item kopuru handia gehiegikeria mota hori ebaluatzeko.

Beste alde batetik, *E-IOA Ap. A (13. eranskina)* zein *IOA (18. eranskina)* eskalek zainketailearen alkohol edo beste substantzia batzuen kontsumoari buruzko informazioa biltzen dute. Gehiegi edaten duten zainketaileek bere menpeko duten adineko pertsonaren beharrak asetzea alde batera utzi dezakete. Era berean, zainketaileek adinekoak alkohola edatera animatu ditzakete, mantsoagoak izan daitezten. Eskala horiek ebaluatzen dituzten beste item batzuek zainketailearen borondate eza eta esperientzia eza hartzen dute kontuan (47).

Bukatzeko, *CASE (14. eranskina)* galdetegiak zainketaileek sufritzen duten euskarri ezaren ondorioz eratorritako estresa jatorria duten jokaerek eragindako tratu txar psikologikoa edota negligentzia edo abandonua hautematea du helburu.

Zainketen hartzaileari zuzendutako tresnen analisisian aurrez aipatu bezala, zainketailearen betebeharrak burutzen dituenak gaineztatzera heldu daiteke, *Zainketailearen Sindromea* garatuz. Detekzio hau egiteko, galdeketa honako elementu hauek erabiltzen ditu: “do you often feel so tired or exhausted that you cannot meet ()’s needs?” y “do you often feel you have to reject or ignore (x)?”.

5.1.2.3 Tratu txar ekonomikoa

Neurri txikiagoan, tratu txar ekonomikoa soilik *E-IOA (13. eranskina)* eta *IOA (18. eranskina)* eskalei esker ebaluatzen da, 2 eta 1 itemekin hurrenez hurren, eta horien bidez zainketailearen finantza-mendekotasunari eta bizitzeko modu egokiei buruzko informazioa biltzen dute. Tratu txar mota hau antzemateko lauso eta zehaztugabeko informazioa dela deritzogu, adineko pertsonaren bizi kalitatean zuzenean eragin dezakeelako, arestian aipatu bezala.

Azkenik, adinekoen zainketaileari zuzendutako tresnek sexu abusuen eta tratu txar fisikoaren inguruko informazioa biltzen ez dutela azpimarratu behar da. Izan ere, erasotzaileak izaera horren inguruko informazioa ematea oso zaila dela uste dugu.

Hitz gutxitan, soilik 3 tresna identifikatzen dira: *CASE (14. eranskina)* galdetegia, zainketaileari espresuki zuzendutakoa, osasun profesionalaren eta zainketa hornitzailearen arteko elkarrizketaren bidez informazioa biltzen duena. Bestalde, *E-IOA Ap. A (13. eranskina)* eta *IOA (18. eranskina)* eskalek tratu txarrak adierazle objektibo batzuen bidez ebaluatzen dituzte, eta osasun profesionalaren trebetasuna da tratu txarren existentzia zehaztu dezakeena.

Hautatutako 16 tresnen analisi kualitatiboa laburbilduz, ikus dezakegu denek ez dituztela 5 tratu txar motak baloratzen: tratu txar fisikoa, tratu txar psikologikoa, negligentzia edo abandonua, eraso sexualak eta tratu txar ekonomikoa. Baliabideetan jasotzen ez diren tratu txarrak ikusezinak direla uste dugu eta, beraz, beharrezkoa da adinekoengan tratu txarrak hautemateko tresnak aipatutako 5 tratu txar motak sakonki ebaluatzea.

EAEko galdetegiari (12. *eranskina*) dagokionez, tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta detektatzera soilik bideratuta dago, modu horretan tratu txar psikologiko, negligentzia eta abandonua edo eraso sexualen detekzioan hutsune bat uzten du gure erkidegoan.

Beste alde batetik, adineko zenbait pertsona agian ez dira jabetzen jasaten ari diren tratu txarren egoeraz. Kontziente diren kasuetan, lotsa, tristura eta ezintasun sentimenduek gehiegikeriaren errealitatea ezkutatzera eraman ditzakete. Gure kulturaren tratu txarren eragilea den familia/pertsonarengan erortzen den estigma sozialagatik areagotzen da aipatutako okultismo hori. Halaber, familia oso estimatua den gizartean, adinekoen ustez, jasandako gehiegikerien inguruan hitz egiteak familiako bizikidetzak kaltetzen lagun dezake. Orobat, kontuan hartu behar dugu tresna hauek eskaintzen dituzten galdera asko barru-barrukoak eta erantzuteko zailak direla, lehenaldia eta ondorena izan daitezkeelako pertsona adinduaren bizitzan. Kasu hauetan, beraz, adierazle objektiboak erabiliz informazioa fidagarriagoa lortuko dugu. Hari beretik, tresnaren eraikuntza herrialdea ere kontuan hartu behar da, alderdi desberdinetako enfasia herrialde jakin bateko balioen eta gizarteen arabera har daitezkeelako, beraz garrantzitsua da adinduek jasaten dituzten tratu txarrak detektatzeko tresnek baliozkotze kulturala izatea.

Horri, gainera, narriadura kognitiboa pairatzen duten adinekoak daudela gehitzen zaio. Hori dela eta, zainketa jasotzaileari zuzendutako tresnak erabiliz osasun profesionalak egindako elkarrizketaren bidez adindu hauetan kalitatezko tratu txarren hautematea burutzea zaildu egiten da. Hortaz, kontuan hartu behar da tresna gehienak egoera kognitibo ona duten adinduak erantzun ahal izateko diseinatuta daudela. Beraz, narriadura kognitiboa eta ahultasun handiagoa duten pertsonak jasaten dituzten tratu txarrak osasun profesionalak burututako ebaluazio objektiboaren bidez edo zaintzaileari zuzendutako tresnen bidez soilik antzeman daitezke.

Touza et al., bere artikuluan erasotzaileari zuzendutako adierazleak tratu txarren iragarle hobeak direla adinekoei zuzendutakoak baino biltzen du; zaintzaileari erreferentzia egiten dioten itemak garrantzitsuenak direla arrisku egoerak hautemateko bere ikerketan planteatutako hipotesia izanik (33). Kontrara, zaintzaileari zuzendutako tresnek fidagarritasun falta dutela uste dugu, azken honek adineko pertsonari buruzko informazio zehatza ez ematea gerta litekeelako. Hortaz, bai zaintzailearen zein zaintza-hartzailearen, bion, informazioa jasotzen dituzten baliabideak hobeak direla uste dugu.

5.2. Análisi psikometrikoa

Aukeratutako zenbait ikasketek eskala eta galdetegien inguruko datu psikometrikoak eskaintzen dituzte. Tratutxoak zehatzago neur ditzaketen tresnak ezagutzera hurbiltzeko asmoz, analisisa erreproduzigarritasuna eta sentsibilitate-espezifikotasun bi kategoriatan sailkatu dugu (24. *eranskina*).

5.2.1. Erreproduzigarritasuna

Kategoria honetan tratutxoak neurtzeko tresnaren fidagarritasuna aztertzen duten ikerketak bildu dira. Hemen, fidagarritasunaren, barne-koherentziaren eta behatzailearen barne-fidagarritasunaren estatistikak aurkeztuz.

5.2.1.1. Fidagarritasuna

Neurketa tresnen propietate horren bidez, egoera beraren aurrean neur daitezkeen aldagaiak beti emaitza berberak lortzea du helburu (48). Tresna baten fidagarritasuna neurtzeko *Cronbach Alpha* eta horren homologoa, hau da, *Rasch Person Reliability* erabili ditzakegu (4. *taula*).

Schofield MJ, et al.-k egindako analisisian VASS galdetegiak balio desegokiak erakutsi zituen dimentsio guztietan *Menpekotasun* dimentsioan izan ezik ($\alpha=0,74$) (19). *E-IOA* eskalari dagokionez, fidagarritasun ona erakutsi zuen bere 11 dimentsioetan $\alpha>0,78$ baino balio handiagoekin *Cohen M et al.*-en artikuluan (26). Era berean, *Giraldo-Rodriguez L et al.*-k egindako analisiak fidagarritasun balio onak eman zituen *GMS* tresnaren 5 dimentsioetan $\alpha>0,72$ -rekin, tratatu txar ekonomikoan izan ezik, non emaitza 0,55 baino handiagoa ez zen (24).

Gainerako tresna guztien fidagarritasun globalaren azterketari dagokionez: *CASE*, *FAMOASQ*, *IOA*, *SRNS*, *BASE* eta *EAI*, fidagarritasun balio onak lortu zituzten $\alpha>0,71$ (27, 28, 31, 32, 33, 35, 36, 38). *HS/EAST* galdetegiaren $\alpha=0,29$ balio baxuak arreta deitzen du, eta horrek, printzipioz, erabilera ez gomendatzera bideratuko gaitu (39).

Conrad KJ et al.-k aztertutako *OAFEM* eta *OAPAM* galdetegiak *Rasch Person Reliability* erabiliz fidagarritasuna neurtzen dute, non balioak 0,92 (*Cronbach*- $\alpha=0,96$) eta 0,86 (*Cronbach*- $\alpha=0,92$) izan ziren hurrenez hurren (22, 23).

4. taula: Adinekoen tratatu txarrak ebaluatzeko tresnen fidagarritasuna aztertzen duten ikerketen emaitzak.

TRESNAK	EGILEAK	FIDAGARRITASUNA
VASS	<i>Schofield MJ, et al.</i> (2003)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> : Menpekotasuna $\alpha = 0,74$ Akidura $\alpha = 0,44$ Ahultasuna $\alpha = 0,45$ Hertsadura $\alpha = 0,31$
OAFEM	<i>Conrad KJ, et al.</i> (2010)	Fidagarritasuna - <i>Rasch person reliability</i> = 0,92 (<i>Cronbach alpha</i> : 0,96)
OAPAM	<i>Conrad KJ, et al.</i> (2010)	Fidagarritasuna - <i>Rasch person reliability</i> = 0,86 (<i>Cronbach alpha</i> : 0,92)
GMS	<i>Giraldo – Rodriguez L, et al.</i> (2012)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> global:0,83 Tratatu txar fisikoa $\alpha = 0,72$ Tratatu txar psikologikoa $\alpha = 0,82$ Negligentzia $\alpha = 0,80$ Eraso sexuala $\alpha = 0,87$ Tratatu txar ekonomikoa $\alpha = 0,55$
E-IOA	<i>Cohen M, et al.</i> (2006)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> : <i>Behaviour problems (caregiver)</i> : $\alpha = 0,86$ <i>Mental or emotional difficulties (caregiver)</i> : $\alpha = 0,91$ <i>Poor current relationship (caregiver)</i> : $\alpha = 0,82$ <i>Marital or family problems (caregiver)</i> : $\alpha = 0,80$ <i>Behaviour problems (elder)</i> : $\alpha = 0,91$ <i>Financial dependence (caregiver)</i> : $\alpha = 0,78$ <i>Socially isolated (elder)</i> : $\alpha = 0,88$ <i>Marital or family problems (elder)</i> : $\alpha = 0,90$ <i>Mental or emotional difficulties (elder)</i> : $\alpha = 0,84$ <i>Lacks social support (elder)</i> : $\alpha = 0,91$ <i>Poor current relationship (elder)</i> : $\alpha = 0,78$
CASE	<i>Reis M, et al.</i> (1995) <i>Perez–Rojo G, et al.</i> (2015)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,71 Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,84
FAMOASQ	<i>Ruelas–Gonzalez MG, et al.</i> (2017)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,89
IOA	<i>Reis M, et al.</i> (1998) <i>Touza C, et al.</i> (2018)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,92 Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,98
SRNS	<i>Zawisza K, et al.</i> (2019)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,91
BASE	<i>Reis M, et al.</i> (1995b)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,91
EAI	<i>Fulmer T, et al.</i> (2003)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,84
HS/EAST	<i>Naele AV, et al.</i> (1991)	Fidagarritasuna - <i>Cronbach alpha</i> :0,29

Iturria: egileak egina.

5.2.1.2. Barne konsistentzia

Propietate horren bidez dimentsio bera neurtzen duten tresnetako itemek homogeneotasuna duten ala ez ebaluatzen da, horrek adierazten du domeinu bakoitzeko puntuak neurtzeko asmoa duten kontzeptua eta ez beste bat neurtzen duten (48).

Hautatutako 3 ikasketek (5. taula) propietate hau *Kurder-Richarson*-en Korrelazioa (KR) erabiliz neurtu zuten. *Da Silva Maia R, et al.* eta *Dantas RB, et al.* VASS galdetegiaren baloreak neurtu zituzten (20, 21). Bi ikerketetan galdetegiaren dimentsioen balioak 0,55 azpitik zeuden, *Dantas*

RB, et al.-k egindako ikerketan 0,7 balio duen Ahultasun dimentsioa izan ezik. Aitzitik, mendekotasun dimentsioaren balioak baxuak izan ziren bi ikerketetan. Halere, ATTFEHP galdetegiaren analisiak balio altuagoak erakutsi zituen, eta 1. eta 2. galdetegiak Kurder-Richarson Korrelazioari dagokionez 0,637 eta 0,721 emaitzak lortu zituzten hurrenez hurren (25).

5. taula: Adinekoen tratu txarrak ebaluatzeko tresnen barne - konsistentzia aztertzen duten ikerketen emaitzak.

TRESNAK	EGILEAK	BARNE - KONSISTENTZIA
VASS	<i>Da Silva Maia R, et al. (2016)</i>	Barne - konsistentzia: Kurder – Richarson global: 0,688 Menpekotasuna 0,289 Akidura 0,552 Ahultasuna 0,548 Hertsadura 0,303
	<i>Dantas RB, et al. (2017)</i>	Barne - konsistentzia: Kurder – Richarson global: 0,69 Menpekotasuna 0,35 Akidura 0,32 Ahultasuna 0,71 Hertsadura 0,51
ATTFEHP	<i>Goikoetxea MJ, et al. (2017)</i>	Barne - konsistentzia: Kurder – Richarson: 1. galdetegia: 0,637 2. galdetegia: 0,721

Iturria: egileak egina.

5.2.1.3. Behatzaileraren barne-fidagarritasuna

Propietate honek tresnaren errepikagarritasunari egiten dio erreferentzia, hau da, ebaluatzaile berberak, metodo berarekin, adineko populazio berari eta bi momentu desberdinetan aplikatzen denean, antzeko puntuazioak lortzen badira (48).

Azterketa batek bakarrik baloratzen du propietate hau, *Dantas RB, et al.*-k *Kappa Indize global* ona erakutsi zuen VASS galdetegirako (6. taula). Halarik ere, *Menpekotasunaren* eta *Hertsadura* dimentsioek nahi baino balio txikiagoak erakutsi zituzten, hau 0,74 baino txikiagoa izanik. Aldiz, *Akidura* eta *Ahultasun* dimentsioei dagokionez ikerketak Behatzaileraren barne-fidagarritasun balio onak eman zituen (21).

6. taula: Adinekoen tratu txarrak ebaluatzeko tresnen behatzaile-barneko fidagarritasuna aztertzen duten ikerketen emaitzak:

TRESNAK	EGILEAK	BEHATZAILEAREN BARNE-FIDAGARRITASUNA
VASS	<i>Dantas RB, et al. (2017)</i>	Behatzailearen barne-fidagarritasuna: <i>Kappa Indize globala</i> : 0,97 Menpekotasuna: 0,6561 Akidura: 0,890 Ahultasuna: 0,955 Hertsadura: 0,736

Iturria: egileak egina.

5.2.2. Sentsibilitate – espezifikotasuna

Bi propietate hauek tresnak detektatzeko duen gaitasunaren berri ematen digute. Sentsibilitateari dagokionez, tratu txarrak jasaten dituzten pertsonen proportzioari buruzko informazioa eskainiko digu. Espezifikotasuna, ostera, benetan tratu txarrak jasaten ez dituzten pertsonengan tratu txarrak ez hautemateko gaitasuna neurtzen du (48).

Sentsibilitate analisiari dagokionez, aztertutako tresna guztiek %71a gainditzen zutela ikusi dugu, *Yaffe MJ et al.*-k aztertutako *EASI* galdetegia izan ezik, non balioa %47koa zen (26, 29, 30, 31, 33, 34, 35, 37). Horrela, tratu txarrak jasan dituzten adinekoen proportzioa detektatzeko tresnaren gaitasuna txikiagoa dela frogatu da (7. taula).

Bestalde, azterketa guztietan instrumentuen espezifikotasuna %71a baino handiagoa zela ikusi dugu, hau da, tresnak tratu txarrak jasaten ez dituzten adinekoen proportzioa ez hautemateko gaitasuna, zeinen emaitza negatiboa izango den (26, 29, 30, 31, 33, 34, 35, 37).

7. taula: Tratu txarrak ebaluatzeko tresnen sentsibilitatea eta espezifikotasuna aztertzen dituzten ikerketak.

TRESNAK	EGILEAK	SENTSIBILITATEA	ESPEZIFIKOTASUNA
E-IOA	Cohen M, et al. (2006)	%92,9	%97,9
ED SENIOR AID	Platts-Mills TF, et al. (2020)	%94,1	%84,3
REAGERAS	Simmons J, et al. (2020)	%87,5	%92,3
FAMOASQ	Ruelas-González MG, et al. (2017)	%86	%90
IOA	Touza C, et al. (2018)	%94	%85
EASI	Yaffe MJ, et al. (2008)	%47	%75
SRNS	Zawisza K, et al. (2019)	%71	%93
EAI	Fulmer T, et al. (2000)	%71	%93

Iturria: egileak egina.

Analisi psikometrikoa laburbilduz, adinekoenganako tratu txarrak hautemateko tresnen fidagarritasuna, barne-konsistentzia, behatzailearen barne-fidagarritasuna, eta sentsibilitatea eta espezifikotasuna aztertzean datza.

Fidagarritasun handiagoa erakutsi zuten tresnek, hau da, egoera berearen aurrean tratu txarrak jasaten dituzten adinekoen kopuru bera antzeman zutenak, IOA eskala Touza C, et al.-en analisian eta OAFEM galdetegia zeintzuk Cronbach Alfa 0,98 eta 0,96 emaitzak lortu zituen, hurrenez hurren.

Barne-konsistentziari dagokionez, EAEko prozeduraren 2. galdetegiak KR korrelazioaren bidez aztertutako gainerako tresnek baino balio altuagoak erakutsi zuen, galdetegi honetako itemek neurtzeko asmoa duten kontzeptua neurtzen dutela adieraziz.

Amaitzeko, sentsibilitateari dagokionez, tratu txarrak jasan dituzten adineko pertsonak hautemateko gaitasun handiena erakutsi duten tresnak IOA eskala eta ED SENIOR AID galdetegia izan dira, %94 eta %94,1eko sentsibilitatea erakutsi baitute. Espezifikotasunaren kasuan, ordea, E-IOA eskala %97rekin nabarmentzen da; tresnan baloratutako tratu txarrak jasaten ez dituzten adineko pertsonen baztertzeko gaitasun handiena duen eskala dela adieraziz.

6. ONDORIOAK ETA MUGAK

Ikerketa honen xedea osasun profesionalek adinekoen tratu txarrak antzemateko erabiltzen dituzten detekzio baliabide ezberdinen erabilgarritasuna aztertzea izan da. 16 tresna kualitatiboki eta psikometrikoki aztertu ditugu, eta beraien artean desberdintasun handiak daudela ikusi dugu beren helburuari, baloratzen duten tratu txar motari, egiten diren inguruneari, horiek burutzeko beharrezko denborari, propietate psikometrikoei, hizkuntzaren egokitzapenari eta abareri dagokionez.

Analisi kualitatiboaren kasuan, ikusi dugu 11 tresnek ez dituztela aztertutako 5 gehiegikeria motak biltzen. Gertaera horrek adierazten du tratu txar mota batzuk, hala nola eraso sexuala, gutxi baloratuta daudela tresna guztietan aurreikusten ez direlako. Aztertutako tresnetan jasotzen ez diren tratu txarrak ikusezin geratzen direla uste dugu, adinekoek jasaten dituzten tratu txarren detekzioan ebaluatzen ez delako. Horrez gain, tratu txarren ondorioak ere ezkutuan geratzen dira, biktimak isilean biziz eta, modu berean, konturatu gabe, denbora gehiago iraunduz. Hori dela eta, adinekoenganako tratu txarrak hautemateko tresnak aipatutako 5 tratu txar motak sakonki baloratu behar ditu. Modu berean, tresnek ikusgai gehien bihurtzen duten tratu txar mota neglijentzia edo abandonua dira, tratu txar psikologiko eta ekonomikoa jarraituta.

Zaintzaileari zuzendutako tresnei dagokionez, fidagarritasuna falta zaiela uste dugu, izan ere, litekeena da adineko pertsonari buruz eskaintzen digun informazio egiazkoa ez izatea eta tratu txarrak hautematen zailtasunak izatea. Horren ondorioz, zaintzaileari zuzendutako tresnak baztertu ditugu adinekoen tratu txarrak hautemateko lehentasunezko aukera gisa.

Baloratutako 5 tratu txar motak biltzen dituzten tresna bakarrak *GMS*, *REAGERA-S* eta *EASI* galdetegiak, eta *E-IOA Ap. B* eta *IOA* eskalak direla ondoriozta dezakegu. *GMS* galdetegia eta *E-IOA Ap. B* eskala gehiegikeria mota guztiak item kopuru dezentea erabiliz ebaluatzen dituzten baliabideak dira, eta gainera, balio psikometriko onak erakusten dituzte fidagarritasunari eta sentsibilitateari eta espezifikotasunari dagokionez

Praktika orokorrean erabiliko den tresna aukeratzea zaila da, aurkitzen garen ingurunearen eta testuinguruaren araberakoa baita (etxean, ospitalean, narriadura kognitiboa duten adinekoak, eta abar). Aitzitik, berrikuspen honetan adinekoengan tratu txarrak antzemateko gomendagarrien iruditzen zaigun tresna *E-IOA* eskala da, zehazki *Appendix B*. Bost tratu txar motak modu zabalean ebaluatzeaz eta balio psikometriko egokiak izateaz gain, gure ustez, adinekoenganako tratu txarrak detektatzeko jasotzen dituen adierazleen bidez egindako ebaluazioari eta osasun arloko langileek egindako behaketari esker ez ditu narriadura kognitiboa pairatzen duten edo adierazteko gai ez diren adinekoak baztertzen. Hau horrela izanik, *E-IOA Appendix B* adinekoen tratu txarrak antzemateko aztertu diren tresna guztien artean egokiena dela uste dugu.

Arazo honen inpaktuak eta handitasunak maila guztietako aboradatzea eskatzen du, adinekoen ongizatea sustatzea helburu duten ekintzak eskaintzen dituzten profesionalen eskutik. Erizainak, pazienteekiko duten hurbiltasuna, trebetasunak eta ikuspegi holistikoa dela eta, arrisku faktoreak detektatzeko eta tratu txarrak jasan dituzten adinekoen ebaluazio integrala zuzentzen duten profesionalak izan beharko lukete. Adinekoenganako tratu txarrak antzemateko hainbat tresna garatu dira, erizainek ezagutzen edo erabiltzen ez dituzten arren.

Era berean, adinduek jasaten dituzten tratu txarrak detektatzeko tresna unibertsala sortzeko kontuan hartzeko hesi kulturalak daudela uste dugu, beraz kultura eta hizkuntza egokitzapeneko tresna unibertsala sortzea beharrezkoa da, adinekoen tratu txarren kasuak diagnostikatzeko baliozkotasun handikoa eta osasun profesional ezberdinek erabil dezaketena.

Adinekoen tratu txarrak fenomeno nahiko berria da gure kulturean, beraz, beharrezkoa da pedagogia herritarrengan aplikatzea, zaintzaile informalek zein profesionalek, baita zainketa jasotzaileek ere, tratu txarrak zer diren identifikatu ahal izateko, ebaluazio tresnen zenbait item modu ez negatiboan interpretatu daitezkeelako.

EAEri dagokionez, balioztatutako tresna osatuago baten beharrean dago, bost tratu txar motak modu sakonean ikertzen dituena. Izan ere, tresnan tratu txar fisikoa eta ekonomikoa bakarrik aztertzeak neglijentzia eta abandonua, tratu txar psikologikoa eta tratu txar sexualaren hautematean hutsunea uzten du. Hori dela eta, gure erkidegoan etorkizunean egin beharreko ikerketak adinekoek jasaten dituzten tratu txar mota guztiak hautemateko tresna sortzera bideratu behar direla uste dugu.

Lan honetan aurkitu den mugetako bat hautatutako 21 artikuluen ikerketetan ez dituztela esku-hartze eta kontrol taldea nahaste-aldagaiei aztertzen izan da, lagin bakarra erabiltzen baitute. Horren ondorioz, *ikerketak kuantitatiboko azterketen irakurketa kritikorako gidoia* ezin izan da galdera guztiei osotasunez erantzun.

Azkenik, berrikuspen honetan aztertutako tresna guztiak egile ezberdinek balioztatu dituzte. Hala ere, hainbat tresnetan balioztapen hori soilik fidagarritasunaren bidez egiten da, edo barne-koherentziaren bidez beste kasu batzuetan. Beste mugetako bat, tresna horien analisi psikometrikoa urria dela uste dugu, izan ere tresnak alderatu ahal izateko tresna horien datu psikometrikoko berdinak eta guztiak behar ditugu. Hori dela eta, uste dugu azterketa psikometrikoko osoago baten etorkizuneko azterketak egin beharko lirakekeela, parametro psikometrikoko gehiago ebaluatzen diren lekuan: tresnen erreproduzigarritasuna, baliozkotasuna, sentsibilitatea eta erabilgarritasuna, informazio zabalagoa lortzeko asmoz.

7. ERREFERENTZIAK

1. Abades Porcel M, Rayón Valpuesta E. El envejecimiento en España: ¿un reto o problema social? GEROKOMOS. 2012;23(4):151-155.
2. Adineko Pertsonen Egoera Estatistikoa [Internet]. Eustat. 2020 [Sartze data: 2020/11/18]. Eskuragarri: https://www.eustat.eus/banku/id_2212/indexLista.html
3. Pérez Rojo G, Chulián A. Marco conceptual de los malos tratos hacia las personas mayores. Sociedad y Utopía. Revista de Ciencias Sociales. 2013;41:127-167.
4. Kessel H, Marín N, Maturana N. Declaración de Almería sobre el Anciano Maltrato. Rev. esp. geriatr. gerontol. 1996;31:367-372.
5. Penhale B. International Network for the Prevention of Elder Abuse (INPEA). The Journal of Adult Protection. 2002;4(2):28-31.
6. OMS. Declaración de Toronto para la prevención global del maltrato a las personas mayores. [Internet] 2002. Eskuragarri: <http://www.who.int/ageing/en/>.
7. Touza Garma C. Por qué y cuándo se han de utilizar las «Escalas de detección de riesgo de malos tratos domésticos y comportamientos autonegligentes (EDMA). Universitat de les Illes Balears Departament de Pedagogia y Didácticas Específicas. 2010;23(1):145-161. Doi: 10.5209/CUTS.8325.
8. Departamento De Empleo Y Políticas Sociales Del Gobierno Vasco. Procedimiento De Prevención y Detección de malos tratos físicos y económicos a Personas Mayores en la CAPV. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. 2015;1:7–14.
9. Sanchez Martinez L. Malos Tratos a las Personas Mayores: Percepción, Conocimientos y Barreras para la Detección. Universidad de Murcia. 2015;32-33.
10. Sánchez del Corral F, Sancho Castiello MT Vejez, negligencia, abuso y maltrato. La perspectiva de los mayores y de los profesionales. Investigación cualitativa de la SEGG e IMSERSO. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales. 2004;1:141-162.
11. Márquez Herrera AM. Consideraciones sobre maltrato y violencia en la vejez a la luz de la calidad de vida. Grupo Interdisciplinario sobre Envejecimiento de la Universidad Nacional De Colombia. 2004;3-4.
12. Diccionario de la lengua española [Internet]. Madrid: Real Academia Española; 2021 [Sartze data: 2021/02/14]. Eskuragarri: <https://dle.rae.es/>
13. Moya Bernal A, Barbero Gutiérrez J. Malos tratos a personas mayores: guía de actuación. IMSERSO. 2005;1:26-27.
14. Sancho M, Pérez-Rojo G, Barrio E, Yangus JJ, Izal M. Estudio De Prevalencia De Malos Tratos A Personas Mayores en la Comunidad Autonoma del Pais Vasco. Vitoria-Gasteiz: Gobierno Vasco. 2011:60–70.
15. Pérez-Rojo G, Sancho Castillo MT, Aranda Jaquotot MT, Yuste A. Aportación española a los avances internacionales en la adaptación lingüística y cultural de un instrumento de detección de sospecha de maltrato hacia personas mayores. Rev. esp. geriatr. gerontol. 2008;43(3):180-208. Doi: 10.1016/S0211-139X(08)71178-8.

16. Herrero Velázquez S, Fernández Alonso MC. Maltrato en el anciano: Posibilidades de intervención desde la atención primaria. *Publicación oficial de la Sociedad Española de Familia y Comunitaria*. 2006;37(2):113-115.
17. Pérez-Rojo G, Izal M, Montorio I, Regato P, Espinosa JM. Prevalencia de malos tratos hacia personas mayores que viven en la comunidad en España. *Med Clin (Barc)*. 2013;141(12):522–526. Doi: 10.1016/j.medcli.2012.09.048.
18. Fulmer T, Guadagno L, Bitondo dyer C, Connolly MT. Progress in Elder Abuse Screening and Assessment Instruments. *J AM*. 2004;52(2):297-304. Doi: 10.1111/j.1532-5415.2004.52074.x.
19. Schofield MJ, Mishra GD. Validity of self-reported screening for elder abuse: Women's Health Australia study. *Gerontologist*. 2003;43(1):110–120. Doi:10.1093/geront/43.1.110.
20. Da Silva Maia R, Chavez Maia EM. Psychometric evidence of the transcultural adaptation of the Vulnerability Abuse Screening Scale (VASS) for the detection of violence against the elderly. *Rev. Bras. Geriatr. Gerontol. Rio de Janeiro*, 2016;19(6):958-969. Doi:10.1590/1981-22562016019.150133.
21. Dantas RB, Lage Oliveiral G, Maria Silveirall A. Psychometric properties of the Vulnerability to Abuse Screening Scale for screening abuse of older adults. *Rev Saúde Pública*. 2017;51:31. <https://doi.org/10.1590/S1518-8787.2017051006839>.
22. Conrad KJ, Iris M, Ridings JW, Langley K, Wilber KH. Self-Report Measure of Financial Exploitation of Older Adults. *The Gerontologist*. 2010;50(6):758–773. Doi: 10.1093/geront/gnq054.
23. Conrad KJ Iris M, Ridings JW, Langley K, Anetzberger GJ. Self-report Measure of Psychological Abuse of Older Adults. *The Gerontologist*. 2010;51(3):354–366. Doi: 10.1093/geront/gnq103.
24. Giraldo-Rodríguez L, Rosas Carrasco O. Development and psychometric properties of the Geriatric Mistreatment Scale. *Geriatr Gerontol Int*. 2012;13(2):466-474. doi: 10.1111/j.1447-0594.2012.00894.x.
25. Goikoetxea Iturregi M, Moro Inchartieta A, Martínez Rueda N. Validación de un procedimiento de prevención y detección de malos tratos físicos y económicos a personas mayores. *Rev Esp Geriatr Gerontol*. 2017;52(6):299-306. Doi: 10.1016/j.regg.2017.04.003.
26. Cohen M Halevi-Levin S, Gagrin R, Friedman G. Development of a Screening Tool for Identifying Elderly People at Risk of Abuse by Their Caregivers. *J Aging Health*. 2006;18(5):660-685 Doi: 10.1177/0898264306293257.
27. Reis M, Nahmiash D. Validation of the Caregiver Abuse Screen (CASE). *Can J Aging* 1995;14(2):45-60. doi: <https://doi.org/10.1017/S0714980800005584>.
28. Pérez-Rojo G, Nuevo R, Sancho M, Penhale B. Validity and Reliability of the Spanish Version of Caregiver Abuse Screen (CASE). *Res Aging*. 2015;37(1):63–81. doi: 10.1177/0164027514522275.
29. Platts-Mills TM, Hurka-Richardson K, Shams RB, et al. Multicentre Validation of an Emergency Department–Based Screening Tool to Identify Elder Abuse. *Ann Emerg Med*. 2020;76(3):280-290. Doi: 10.1016/j.annemergmed.2020.07.005.

30. Simmons J, Wiklung N, Ludvigsson M, Nägga K, Swahnberg K. Validation of REAGERA-S: a new self-administered instrument to identify elder abuse and lifetime experiences of abuse in hospitalized older adults. *J Elder Abuse Neg.* 2020;32(2):173-195. Doi: 10.1080/08946566.2020.1737614.
31. Ruelas-Gonzalez MG, Pelcastre-Villafuerte BE, Monterrubio-Flores E, Alcalde-Rabanal JE, Ortega-Altamirano DV, Ruano AL, Saturno Hernández PJ. Development and validation of a Screening Questionnaire of Family Mistreatment against Older Adults for use in primary care settings in Mexico. *Health Soc Care Community.* 2017;26(1):102-112. Doi: 10.1111/hsc.12466
32. Reis M, Nahmiash D. Validation of the Indicators of Abuse (IOA) Screen. *Gerontologist.* 1998;38(4):471-480. Doi: 10.1093/geront/38.4.471
33. Touza C, Martinez-Arias R, Prado C. Psychometric Properties of the Spanish Adaptation of the Indicators of Abuse (IOA) Screen. *Span J Psychol.* 2018;21(43):1-12. doi: 10.1017/sjp.2018.38
34. Yaffe MJ, Wolfson C, Lithwick M, Weiss D. Development and Validation of a Tool to Improve Physician Identification of Elder Abuse: The Elder Abuse Suspicion Index (EASI). *J Elder Abuse Neg.* 2008;20(3):276–300. Doi:10.1080/08946560801973168
35. Zawisza K et al. Validity of a Self-reported Neglect Scale Among Older Adults in Poland. *Gerontologist.* 2019; 2;60(3):117-126. Doi:10.1093/geront/gnz014.
36. Reis M, Nahmiash D. When seniors are abused: An intervention model. *Gerontologist.* 1995b;35(5):666–671. Doi: 10.1093/geront/35.5.666
37. Fulmet T, Paveza G, Abraham I, Fairchild S. Elder neglect assessment in the emergency department. *J Elder Abuse Neg.* 2000;26(5):436–443. Doi:10.1067/men.2000.110621
38. Fulmer T. Elder abuse and neglect assessment. *J Gerontol Nurs.* 2003;29(6):4-5. Doi: 10.3928/0098-9134-20030601-04.
39. Naele AV, Hwalek M, Sengstock M, Stahl C, Scott RO. Validation of the Hwalek-Sengstock Elder Abuse Screening Test. *J Appl Gerontol.* 1991;10(4):406-418. Doi: 10.1177/073346489101000403.
40. Ventura León J. Escalas, inventarios y cuestionarios: ¿son lo mismo?. *Educ Med.* 2020;21(3):218-220. Doi: 10.1016/j.edumed.2019.04.001.
41. Adultos Mayores [Internet]. Instituto Nacional De Salud Pública, México. 2020 [Sartze data: 20 marzo 2021]. Eskuragarri: <https://www.insp.mx/lineas-de-investigacion/salud-y-grupos-vulnerables/investigacion/adultos-mayores.html>.
42. Martínez Moreno E, de la Paz Bermúdez-Pérez M. Maltrato psicológico hacia los mayores: variables a tratar. *Rev Esp Comun Salud.* 2016;7(1):143-153. Doi: 10.20318/recs.2016.3161.
43. Martínez Pizarro S. Síndrome del cuidador quemado. *Rev Clin Med Fam.* 2020;13(1):97-100.
44. Montero Solano G, Vega Chaves JC, Hernández G. Abuso y Maltrato en el Adulto Mayor. *Med. leg. Costa Rica.* 2017;34(1):2-7.
45. España. Ley orgánica 10/1995, de 23 de noviembre, de delitos contra la libertad e indemnidad sexual. [Internet] Boletín Oficial del Estado, 24 de noviembre 1995, nº 281 (Sartze data: 2021/03/31). Eskuragarri: <https://www.boe.es/eli/es/lo/1995/11/23/10/con>.

46. Shimizu Y. El abuso sexual de personas mayores debe ser expuesto y denunciado. Noticias ONU. [Internet] 2019 [Sartze data: 2021/03/21]. Eskuragarri: <https://news.un.org/es/story/2019/06/1457811>
47. Organización Mundial de la Salud (OMS) [Internet]. Ginebra: CPH; 2006 [Sartze data: 2021/02/21]. Maltrato en ancianos y alcohol; [1-9]. Eskuragarri: https://www.who.int/violence_injury_prevention/violence/world_report/factsheets/fs_elder_es.pdf?ua=1
48. Luján-Tangarife JA, Cardona-Arias JA. Construcción y validación de escalas de edición en salud: revisión de propiedades psicométricas. 2015;11(3):3-5. Doi: 10.3823/125.
49. Departamento De Empleo Y Políticas Sociales Del Gobierno Vasco. Procedimiento De Prevención Y Detección de malos tratos físicos y económicos a Personas Mayores en la CAPV. Vitoria-Gasteiz:Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco. 2015;1:7-14.

8. ERANSKINAK:

1. eranskina: Kontzeptu taula:

Kontzeptu nagusia	Lengoaia naturala		Lengoaia kontrolatua (deskriptoreak)
	Sinonimoa	Ingelesez	
ADINEKO PERTSONAK	PERSONAS MAYORES ANCIANOS ADULTO MAYOR TERCERA EDAD	OLD ELDERLY AGED	Medline (MeSH): <i>Aged; Aged, 80 and over</i> CINAHL (Descriptor de CINAHL): <i>Aged; Aged, 80 and over</i> Cochrane Database (MeSH): <i>Aged; Aged, 80 and over</i> CUIDEN: <i>Ancianos; Personas Mayores</i> EMBASE (EMTREE): <i>Aged</i> PsycINFO (Thesaurus): <i>Geriatric patients; Older adulthood</i>
DETEKZIOA	DETECCIÓN ESCALAS DIAGNÓSTICO CRIBADO IDENTIFICACIÓN	DETECTION SCALES DIAGNOSIS SCREENING IDENTIFICATION	Medline (MeSH): <i>Surveys and Questionnaires.</i> CINAHL (Descriptor de CINAHL): <i>Scales.</i> Cochrane Database (MeSH): <i>Diagnosis.</i> CUIDEN: <i>Diagnóstico.</i> EMBASE (EMTREE): <i>Diagnosis.</i> PsycINFO (Thesaurus): <i>Diagnosis.</i>
TRATU TXARRAK	MALOS TRATOS ABUSO	ABUSE MALTREATMENT MISTREATMENT	Medline (MeSH): <i>Elder abuse</i> CINAHL (Descriptor de CINAHL): <i>Elder abuse</i> Cochrane Database (MeSH): <i>Elder abuse</i> CUIDEN: <i>Malos tratos; Maltrato.</i> EMBASE (EMTREE): <i>Elder abuse; Elderly abuse</i> PsycINFO (Thesaurus): <i>Elder abuse</i>
PROPIETATE PSIKOMETRIKOAK BALIOZKOTASUNA ETA FIDAGARRITASUNA	PROPIEDADES PSICOMETRICAS VALIDEZ Y FIABILIDAD	PSYCHOMETRIC PROPERTIES VALIDITY AND RELIABILITY	Medline (MeSH): <i>Psychometrics.</i> CINAHL (Descriptor de CINAHL): <i>Psychometrics; validity AND reliability.</i> Cochrane Database (MeSH): <i>Psychometrics.</i> CUIDEN: - EMBASE (EMTREE): <i>Psychometry.</i> PsycINFO (Thesaurus): <i>Psychometrics.</i>

2. eranskina: Bilaketa taula

Datu-basea	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
MEDLINE (Ovid)	[(Elder Abuse) AND (Psychometrics)]	51	8	51 emaitzetatik, 8 artikulua aukeratu dira lan honetarako aproposak direlako. Hartu ez diren 43 artikuluetatik, 26ek ez dute gaiarekin zer ikusirik, 8k ez dute populazioaren filtroa betetzen, 2k ez dute argitalpen motaren filtroa betetzen, beste 2k ez dute hizkuntzaren filtroa betetzen eta batek ez du lagingaren filtroa betetzen. Gainontzekoetatik irakurketa kritikoaren bidez deuseztatu dira.
	[(Elder Abuse) AND (Surveys and Questionnaires)]	262	5	262 artikuluetatik, 11 baliagarritzat hartu dira. Gainerako 251 deuseztatu dira: 224 lanaren helburuarekin zer ikusirik ez zutelako, 18 populazioaren filtroa betetzen ez zutelako, 5 hizkuntzaren filtroa betetzen ez zutelako eta 4 lagingaren filtroa betetzen ez zutelako. 11 horietatik, 6 beste bilaketekin hartu dira, beraz lanaren emaitzetarako potentzialki baliagarritzat bezala 5 artikulua aukeratu dira.
CINAHL	[(Elder Abuse) AND (Psychometrics)]	39	0	Lortutako 39 artikuluetatik, 28 artikulua deuseztatu dira helburuarekin bat ez zutelako egiten, 5 populazioaren filtroa eta 1 lagingaren filtroa betetzen ez zutelako. Baliagarriak ziren artikuluetatik, guztiak beste bilaketaren bidez aukeratuak izan dira, beraz ez dira artikulua baliagarririk hautatu.
	[(Elder Abuse) AND (Scale) AND (validity) AND (reliability)]	31	1	Lortutako 31 artikuluetatik, 27 artikulua deuseztatu dira: argitalpen herrialdeagatik (4), artikulua motagatik (1) eta titulua eta <i>abstract</i> -a irakurri ostean (22). Gelditzen diren 4 artikuluetatik, 3 beste datu baseetatik hartu dira eta bakarria baliagarria kontsideratu da lan honetarako.
COCHRANE LIBRARY	(elder abuse):kw AND (diagnosis):kw AND (Aged):kw	10	0	Izenburua irakurri 2 artikulua baliagarritzat kontsideratu dira, halere, deuseztatu dira <i>abstract</i> -a irakurri ostean.
	(elder abuse):kw AND (psychometric):kw	1	0	Bilaketa honetan artikulua bakarria lortu arren, baliagarria da gure emaitzetarako, hala ere aurreko bilaketetatik aukeratua izan da.
CUIDEN	("ancianos")AND(("maltrato")AND("diagnóstico"))	4	0	Lau artikuluetatik bat ere ez da erabilgarria izan. Alde batetik, horietatik hiruk ez dute lanaren helburuarekin bat egiten eta bestea errebisio sistematikoa denez ez du argitalpen motaren filtroa betetzen.
	("ancianos")AND(((("malos")AND("tratos"))AND("diagnóstico"))	3	0	Lortutako 3 artikuluetatik bik ez zuten lanaren helburuarekin bat egiten eta hirugarrena literaturaren errebisioa zen.
EMBASE	[(Elder Abuse) AND (Psychometry)]	29	0	29 artikuluetatik, 14 ez dute lanaren helburuarekin bat egiten. Gelditzen diren 15 artikuluetatik: 4k ez dute populazioaren filtroa betetzen, 1ek ez du lagingaren filtroa betetzen, beste batek ez du argitalpen mota betetzen eta beste baten <i>full-text</i> -a ez dago eskuragarri. 8 artikulua potentzialki baliagarriak dira, baina aurreko bilaketekin aukeratuak izan dira.
	[(Elder Abuse) AND (Diagnosis)]	74	0	Izenburua eta <i>abstract</i> -a irakurri, 13 posible artikulua lortu ziren. Horietatik, 7 artikuluk ez zituzten barne irizpideak betetzen. Gelditzen diren 6 artikuluetatik, 5 beste datu baseetatik hartuak zeuden eta bat baliagarritzat hartu da, hala ere irakurketa kritikoa egin ostean deuseztatu da.

Datu-basea	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
PSYCINFO	[(Elder Abuse) AND (Psychometrics)]	63	4	Izenburua eta <i>abstract</i> -a irakurriz, 21 artikulua posible lortu dira. Horietatik, 8k ez dituzte barne irizpideak betetzen. Artikulu bat irakurketa kritikoan deuseztatu da. Gainontzeko 12 artikuluetatik, 4 baliagarritzat hartu dira, gainontzeko 8ak errepikatuta zeuden.
	[(Elder Abuse) AND (diagnosis)]	27	0	Izenburua eta <i>abstract</i> -a irakurriz, artikulua posible bakarra lortu da. Baina ez ditu barne irizpideak betetzen.

Eskuzko – bilaketa	Bilaketa ekuazioa	Emaitzak		Oharrak
		Aurkitutakoak	Baliagarriak	
THE GERONTOLOGIST	"Elder abuse" AND "Psychometrics"	94	1	Helburua betetzen duen artikulua bakarra lortu da. 65 deuseztatu dira titulua eta <i>abstract</i> -a irakurri ostean. Gainerako 28 artikuluek ez dituzte barneratze eta kanporatze irizpideak betetzen.
GOOGLE AKADEMIKOA	Artikulua baten titulua bilatuz.	1	1	Beste era batera lortu ezin izan den artikulua titulua bilatu da.

3. eranskina: Irakurketa kritikorako gidoiak:

IKERKETA KUANTITATIBOKO AZTERKETA IRAKURKETA KRITIKORAKO GIDOIA

Artikuluak: <i>Validación de un procedimiento de prevención y detección de malos tratos físicos y económicos a personas mayores.</i>		
Helburuak eta hipotesiak	Helburuak edo/eta hipotesiak argi eta garbi zehaztuta daude?	<p>Bai HH Ez</p> <p>Zergatik? Bai titulu zein <i>abstract</i> atalean ikerketaren helburua aipatu egiten da. Horrez gain, metodologia atalean ere azaldu egiten da. Gainera, barne hartzen ditu pazienteen ezaugarriak, aztertutako interbentzioa, eta ikerketaren nondik norakoaren kronologia.</p>
Diseinua	Erabilitako diseinu-mota egokia da ikerketaren helburuari dagokionez (helburuak edo/eta hipotesiak)?	<p>Bai HH Ez</p> <p>Zergatik? Bai. Artikulu honek metodologia kualitatiboa zein kuantitatiboa erabiltzen ditu. Análisi kuantitatiboari dagokionez, tresnaren fidagarritasuna neurtzeko barne-konsistentzia neurtu egin da <i>Kurder – Richardson</i> formula erabiliz. Beste alde batetik, análisis kualitatiboa burutzeko, ustezko tratu txarren 7 kasu aztertu ziren 4h saio baten bidez, modu honetan Prozeduraren bidez lortutako emaitzak kontrastatzeko.</p>
	Esku-hartze azterlan bat edo azterlan esperimetal bat bada, esku-hartzea egokia dela ziurta dezakezu? Esku-hartzea sistematikoki ezartzeko neurriak jartzen dira?	<p>Bai HH Ez</p> <p>Zergatik? Tratu txarren arrisku faktoreak detektatzeko edozein osasun/gizarte laguntza mota jasotzerá datozen 65. urtetik gorako pertsonen 1.galdetegia administratu zitzairen.</p> <p>Hurrengo hilabeteetan Komunitate eremuan tratu txar fisiko eta ekonomikoaren susmo-adierazleak ebaluatu ziren 2 arrisku faktore edo gehiago hauteman zirenei eta borondatez onartu zutenei.</p> <p>Ebaluazioa ere egin zitzairen tratu txarrak jasan dituztela adierazi zuten adinduei, edo azaldu gabeko kalteak edo lesioak antzeman zituztenei.</p> <p>Bi galdetegietan bildutako datuak bildu eta taulatu egiten dira eta dagozkien análisis estatistikoak SPSS programaren bidez burutu zituzten.</p> <p>Azkenik, galdetegia balioztatze helburuarekin, tratu txarren adierazleak zituzten detektatutako 7 kasu metodologia kualitatiboko eztabaida talde batek kontrastatu ziren.</p>
